

Aiurri

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA



Magazina
Milagros Sorarrain

2009ko maiatzaren 8a • 322. zenbakia • 1,20 € • Harpidedunei banatua

| **Amasa-Villabona:** Pilotaleku berria | Oinkariko dantzari gazteak | **Larraul:** Artista txikiak
| **Zizurkil:** Andatzako Estazio Megalitikoa | **Andoain:** Leizaran erreko garbilekuetako bat berreskuratu da
| **Magazina:** Beterriko Liburua Literatur Aipamena 2008 | Pello Joxe Aranburu Larraulgo historiaz

Luze eta zabal
Sakabanaketa
hizpide



Urrezko urteurrena

Asteasuko elkarte: 1959-2009



GOAZEN JOLASTERA 2009



Lehen txanda:
ekainaren 29tik
uztailaren 17ra
bigarren txanda:
uztailaren 20tik
30era

matrikulazioa:
maiatzaren 29etik
ekainaren 5era

andoaingoan bertan nahiko jolas egiteko udalekua 2009ko uzteailan





Argitaratzailea:
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Ekoizlea: **ERROITZ**
KULTUR BAZKUNA

Egoitza Orokorra:
Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
20140, Andoain
☎ 943 300 732 • Faxa: 943 300 731
E-posta: larramendi@aiurri.com

Zizurkilgo egoitza:
Bulandegi bidea 23, Kariade-enea etxea.
20150, Zizurkil
☎ 943 696 450
E-posta: urkizularramendi@topagunea.com

Babesleak:
Aduna, Andoain, Asteasu, Amasa-Villabona,
Larrauli eta Zizurkilgo Udalak

Arduraduna:
Ainhoa Arozena

Erredakzioa:
Ainhoa Arozena, Ainhoa Gil eta Xabier Lasa

Erredakzio laguntzaileak:
Joni Ubeda, Ainhoa Aiertza, Bakartxo Iguaran,
Aitor Usandizaga, Amaia Agirre, Aritz Garin,
Xabier Huizi, Ainara Ansa, Antselmo Larrarte,
Marijuli Azkue, Joxin Azkue, Garazi Kamio,
Txomin Garmendia, Karmen Rodriguez-Ranz,
Igotz Alkorta, Jon Unanue eta Leire Zubeldia

Maketatzailea:
Maddi Trutxuelo

Diseinua:
Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda

Publizitate arduraduna:
Fernanda Irazu

Administratzailea:
Garbiñe Ugartemendia

Banaketa arduraduna:
Garbiñe Ugartemendia

Banatzaileak:
AMASA-VILLABONA, ELBARRENA: Arantza
ANDOAIN: Jon Beloki, Maialen Letamendi,
Vicky Rekena eta Xabier Lasa.
ADUNA: Ainhoa Gil, ASTEASU, LARRAUL: Txaro
Otaegi, ZIZURKIL GOIA: Igotz Alkorta.

Sexologharia:
Kizkitza Arozena

Munduko sukaldaritza:
Esther Urrutia Etxeberria

Psikologia:
Leire Caminos

Aiurri Txikitxo:
Garbiñe Ubeda

Gurutzegrama:
Eloy Artolazabal

Inprimategia:
Sortu Grafikak S. Coop. (Zizurkil)

Lege Gordailua: SS-202/94

ISSN: 1134-0614

Tirada: 2.500 ale

Oharra: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik

Laguntzaileak:



Eusko Jaurilaritza
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

2009ko maiatzaren 8a

NONZER

322. zenbakia

Senideak sakabanaketaren inguruan

Erreportajea

8-11

Andatzako Estazio Megalitikoa

Zizurkil

16-17

Beterriko Liburua Literatur Aipamena 2008

Magazina

22-23



MILAGROS SORARRAIN SALTZAILEA

1954 urteaz geroztik, Donostiako San Martin merkatuan hutsik egiten ez duen saltzailea.

HEMEROTEKA

Gazumeko parke eolikoaren
proiektuaren aurkako
kontzentrazioa4

HAMABOSTEAN BEHIN

Zorion-agurrak, demografia5

HITZAK HOTS

Bakartxo Iguaran6

LARRAUL

Artista txikian lanak ikusgai7

LUZE ETA ZABAL

Senideak,
sakabanaketaren inguruan ...8-11

ANDOAIN

Leitzaran erreka
alboko antzinako
garbilekua12-13

AMASA-VILLABONA

Pilotaleku berria,
zabaltzeko prest14

Oinkariko dantzariak,
Aurreku eta
Soinu Zahar ligan15

ZIZURKIL

Andatzako Estazio
Megalitikoa16-17

ASTEASU

Aitz-Ondo elkartearen
urrezko urteurrena18-19

MAGAZINA

Larrauli herri izatera
iritsi zenekoa20

Denborapasak21

Zoaz *infernura, laztana*
2008ko Beterriko Liburu ..22-23

Herritarren txokoa

San Martin merkatuko
Milagros Sorarrain24-25

Agenda26

Beterri- -Aiztondo

EGUNEZ EGUN

Apirilak 22, asteazkena

Bixente Huizi kirolari andoaindarra hil zen. / ANDOAIN

Apirilak 23, osteguna

Liburu eguna ospatu zen. / BETERRI-AIZTONDO

Apirilak 24, ostirala

Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako kanporaketa joka tu zen. / AMASA-VILLABONA

Apirilak 25, larunbata

Kantu kalejira jendetsua egin zen. / AMASA-VILLABONA
Euripear egin zuten Triana jaia. / ANDOAIN

Apirilak 26, igandea

Juan Mari Garin eta Nerea Amilibia izan ziren Loatzoko igoerako garaileak. / AMASA
Aiztondoko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten Larraul, Aduna eta Zizurkilgo gaztetxoek. / ZIZURKIL

Apirilak 30, osteguna

Ramon Ansak bota zuen Santa-kruz jaien hasiera iragarri zuen txupinazoa. / ANDOAIN
Estanis Amutxastegik hartu zuen Andoingo alkatetza. / ANDOAIN

Maiatzak 3, igandea

Santakruz eguna ospatu zen. / ANDOAIN, ASTEASU
Jai-giro polita sortu zen Andatza egunean. / ZIZURKIL

Maiatzak 7, osteguna

Anjel Lertxundik jaso zuen Beterriko Liburua 2008 izendapena. / BETERRI-AIZTONDO
Oteizaren eskulturak biltzen dituen erakusketa zabaldu zen Atxulondo Kultur Etxean. / ZIZURKIL

Maiatzak 6, asteazkena

Bideo eskolako kultur astea martxan jarri zen. / ANDOAIN

Gazumeko parke eolikoaren proiektuaren aurkako kontzentrazioa



Aste Santu aurretik argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Gazumeko Parke Eolikoaren inguruko informazio publikoa. Proiektuaren arabera, 15 haize-errota eraikiko lirateke Gazumeko tontorrean. Parke eolikoaren aurkako kontzentrazioa deitu du hainbat taldek maiatzaren 17rako, Zelatunen.

Maiatzaren 17an, eguerdiko 12:00etan hasiko da, Gazumen haize-errotak jartzeko proiektuaren aurkako bilkura. Hainbat taldek luzatu du kontzentrazioarako deia; besteak beste, Seo Birdlife Gobernu kanpoko erakundeak, Eguzki talde ekologistak, edota Gipuzkoako hainbat mendizale elkarteak.

Gazumeko proiektuaren arabera, 71 metroko altuera duten 15 haize-errota jarriko dira Gazumeko tontorraren inguruan. Asteasu, Errezil eta Azpeitiako lurrak hartuko ditu parkeak eta 20 milioi euro pasatxo beharko dira eraikitzeke.

Datorren igandeko kontzentrazioaz gain, proiektuari helegiteak aurkezteko mugimendua ere martxan jarri da. Maiatzaren 18an amaituko da helegiteak aurkezteko epea.

HELEGITE PERTSONALIZATUAK

Seo Birdlife txori-zaleen taldeak Gazumeko proiektuaren inguruko informazio zehatza biltzen duen webgunea sortu du:



Dagoeneko 200 helegite aurkeztu dira Eusko Jaurlaritzan

<http://gazume.blogspot.com>. Bertan klik eginez irakur daitezke proiektuaren inguruko datuak eta egunez egun sortzen joan diren albisteak. Proiektuari helegite pertsonalizatuak aurkezteko aukeraren inguruko informazioa ere zabaldu dute webgunearen bitartez.

Helegiterako dokumentua eskuratzeko, nahiko da seodonostia@gmail.com helbide elektronikoaren bidez eskatzea. Helegite pertsonalizatuak sinatuta eta bi kopia eginda, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean aurkeztu behar dira. Eguzki talde ekologista, Sagain mendi elkarte edota Club Vasco del Camping elkartearen egotzatan ere aurkez daitezke.

Azken asteotan helegiteak biltzeko hainbat deialdi egin dute: Apirilaren 25ean, esate-

rako, Donostiako Boulevarden sinadura bilketarako postua jarri zuten. Ordubetean 150 helegite bildu zuten eta beste hainbat herritar hurbildu zen proiektuaren nondik norakoen berri jaso nahian. Dagoeneko 200 helegite aurkeztu dira Eusko Jaurlaritzan.

Gazumeko tontorrean hamabost errota aurreikusten dituzten proiektuak. Seo Birdlife elkarte kide den Ramon Eloseguik laburbildu du elkartearen ikuspuntua: "SEO birdlife erakundea energia berriztagarrien aldekoa da, baina kasu bakoitzaren azterketa sakona egin behar da eta gure ustez ezinbestekoa da Naturgune Babestuak errespetatzea. Momentuz, ez da ezagutzen kalterik eragingo ez duen energia sortzeko modurik, baina ez du batere logikarik kudeaketa zaila duen, kalteak eragingo dituen eta behin-behinekoa izango den sistema garestiaren aldeko apustua egiteak".



ZORION-AGURRAK

OSO ERRAZA DA! IGORRI ARGAZKIA ETA IDATZIA
ANDOAINGO EDOTA ZIZURKILGO EGOITZARA



ZORIONAK
Garazik 18 urte
beteko ditu
maiatzaren
15ean.
Zorionak polit
hori eta ondo-
ondo pasa zure
egunean. Muxu
handi bat,
etxeokak.

ANDOAIN



ZORIONAK
Maialen
Lunbrerasek 7
urte beteko ditu
maiatzaren
8an. Zorionak
marisorgin!
Ondo pasa
amona, izeba
eta amaren
partez.

ANDOAIN



ZORIONAK
Bete berriak
ditu Xabatek
lau urte.
Zorionak eta
muxu goxoak
gure
mutiko
handiari,
etxeokoen
partez.

ADUNA



ZORIONAK
Irati Uranga
Aiertzak 11
urte bete
zituen
maiatzaren
2an. Zorionak
eta beti
bezain alai
jarraitu.
Etxekoak.

ANDOAIN



ZORIONAK
Olaia Altuna
Iraola neskatila
bihurriak lehen
urtetxoa bete
zuen maiatzaren
2an. Zorionak
eta muxu
potoloak,
etxeokoen
partetik.

ZIZURKIL



ZORIONAK
Igande honetan
libratuko al duzu?
Ospatu beharko
duzu zure 26.
urtebetetzea!
Ondo-ondo pasa
eta naranjatxoak
zure kontu, jeje!
Aiurriko
lagunak

ANDOAIN

Demografia

JAIOZAK

- **Irati Fernandez Martin**
Apirilaren 22an, Andoainen
- **Elene Lizarribar Pertaña**
Apirilaren 30ean, Andoainen
- **Enaitz Ariño Arruti**
Apirilaren 25ean, Zizurkil
- **Aimar Unzué Zumeaga**
Apirilaren 18an, Amasa-Villabonan
- **Unax Unzué Zumeaga**
Apirilaren 18an, Amasa-Villabonan
- **Goizeder Imaz Mendizabal**
Apirilaren 24an, Amasa-Villabonan
- **Mohamed Habul Mint Saleck**
Apirilaren 26an, Amasa-Villabonan

EZKONTZAK

- **Jose Antonio Iparragirre eta Maria Juncal Rodriguez**
Maiatzaren 2an, Andoainen
- **Jose Antonio Felipe eta Sonia Rodriguez**
Maiatzaren 2an, Andoainen
- **Ander Garcia eta Lorena Estevez**
Maiatzaren 2an, Andoainen
- **Igor Alustiza eta Ana Berta Paz**
Apirilaren 18an, Amasa-Villabonan
- **Hans Michael Blume eta Miren Karnele Chavez**
Apirilaren 18an, Amasa-Villabonan

HERIOTZAK

- **Maria Teresa Garcia Markotegi**
Apirilaren 21ean, Amasa-Villabonan
- **Bixente Huizi Zuñiga**
Apirilaren 22an, Andoainen
- **Juana Goenaga Elordi**
Maiatzaren 3an, Andoainen
- **Carmen Torres Penas**
Maiatzaren 4an, Andoainen
- **Raimundo Unzué Errasti**
Maiatzaren 4an, Andoainen

BATXILERGOAK



LEIZARAN INSTITUTUA

Plazaola kalea, 23 - Andoain

943 300 078

www.leizaran.net

iesandoain@euskalnet.net

- Maiatzean aurrematrikula irekiko dugu batxilergoak egiteko. (Euskara eta gaztelera A eta D ereduak)
- Unibertsitatetara joateko edo goi mailako zikloak egiteko ondo prestatzen zaituztegu.
- Plaza erreserbatzeko deitu gure telefonora.

Gurpil zoroan II: Krisia eta aisialdirako ohitura berriak



Bakartxo Iguaran

Andoain

Aurrekoan krisi larria jota dagoen sistema ekonomiko kapitalistaz jardun nuen, bertatik ateratzeko sistema bera birplanteatu beharraz eta hori gauzatzeko nire zalantzez.

Nik ez dakit emaitza zein izango den, baina kapitalismoa birplanteatzearen beharra argi ikusten dut; izan ere, kapitalismoa kontsumoaren hazkundearen oinarritzen da eta horrek berez ez du mugarik. Baina lurraren baliabideak mugatuak dira eta gaur egun ematen den aberastasunaren banaketa, injustoa. Horregatik krisi hau, sistema bera birplanteatzeko aukera bat bezala ikusten dudala nioen aurreko idatzian ere.

Denok (goiko eta beheko) ikasi behar dugu xumeago bizitzen, naturaren eta besteren kontura ez aberasten, baina nire uesteapalean goitik behera hasi beharko genuke gauzak aldatzen: erakunde publikoen aldetik, banku, eraikuntza-etxe, autogile... eta gauzak ondo joan diren artean aberastu direnen zuloak ez tapatzen, negozio handien kudeatzaileei bere irabazien araberrako zergak eskatzen...; enpresak, izan ditzaketen irabazi txikiagoekin bizirauten eta hori langileen bizkar (EREak eta beste) joan ez dadin lan egiten; langileria, erdi mailako klasea batez ere, bere bizimodua birplanteatzen, gure ahalbideen gainetik bizi izan garela onartu eta apalago bizitzen.

Egia esan, herritar xumeok apalago bizitze horretan ikasten ari garela iruditzen zait, esate baterako, gure aisialdian (edo langabezia), inguruan dauzkagun baliabideak aprobetxatuz, mendian bueltatxo bat emanez, kiroldegiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz, formazio ikastaroak (asko doakoak) eginez edo udal liburutegiak bisitatuz.

Udal liburutegien kasuan, adibidez, erabilpenaren gorakada egunez egun ikusten dut nire lantokian. Egia da aurtengo udazkena eta negua oso gogorak izan direla eta jendea aterpe bila ere joaten dela liburutegira, baina hori ez da arrazoi bakarra izan liburutegiak gainezka egoteko: asteburue-

tarako ikus-entzunezkoen maila kopurua izugarri igo da, interneten lan bila dabilzan erabiltzaileak ugaritu egin dira edo oposaketak prestatzen ari direnak (Osakidetza tarteko), lehendabizikoz liburutegira etorri eta zer eskaintza dugun ezagutzera datozenak ere gehiago dira (eta maiz ohiko erabiltzaile bihurtzen dira), bidaia bat prestatzeko bertara jotzen dutenak...

Finean, udal liburutegia doako zerbitzua ez ezik, zerbitzu moderno, anitz (Nafarroan ez hainbeste Gara eta Berria kendu dituztenetik) eta irekia/zabala dela sumatzen du bertara gerturatzen denak, hau da, krisiari aurre egiteko aukera paregabea. To!

“ Herritar xumeok apalago bizitze horretan ikasten ari garela iruditzen zait ”

 **kutxa**
zer nahi duzu bihar?

FEDEROPTICOS ORTE

 Ikasteko arazoren bat al du **ZURE SEMEAK EDO ALABAK?**

Ikasketarekin eta irakurketarekin
lotutako
IKUSMEN ARAZOETARAKO
tratamenduak

Ikusmenerako terapia

Nagusia, 9. Tel./Faxa: 943 591 817
e-posta: orte@euskalnet.net Andoain

Larraulgo artista txikien lanak ikusgai

Irudimena, kolorea eta lana bateratuz, erakusketa polita antolatu dute Larraulgo eskolan. Ikasturtean zehar egindako lanak txukun-
txukun zintzilikatu eta herritarrak gonbidatu dituzte ikustera.

Apirilaren 27an egin zuten erakusketaren inaugurazio ekitaldia. Eguerdiko 12:00etan, eskolako atarian bildu zen guraso, aiton-amon eta lagun talde bat. Azken orduko arazo tekniko txikiak konponduta, haurren eskutik igo ziren guztiak Kultur Etxeko azken solairura. Marrazki eta margolanak erakustez gain, haiek lantzeko prozesua ere erakutsi nahi izan zuten eta horretarako, ikasturtean zehar egindako argazki bilduma polita izan zuten ikusgai. Pirritx eta Porrotxen kantuez alaituta, adi jarraitu zuten argazki emanaldia, txikiek zein helduek.

ARTISTEN ARGAZKIAK

Artista txikien lana gertuagotik ezagutzeko aukera eman zuten argazki muntaia. Mar-



Ikasturtean ateratako argazki emanaldiarekin zabaldu zuten margolan erakusketa.

goekin, pintzelekin edo eskuekin margotuz, taldeka edota banaka, irudi sorta polita izan zen ikusgai: “Ikasturtean zehar egindakoa gurasoei erakustea da gure helburu nagusia. Oso lan politak egin dituzte haurrek, eta guztiok elkarrekin gozatzea garrantzitsua dela iruditzen zait”, azaldu zuen Maikar Iurramendi irakasleak.

Argazki emanaldiaren ondoren, gurasoei eskutik heldu, eta margolanak erakusteko ardur hartu zuten txikiek. Lan bakoitza egiteko erabilitako teknika azaldu zieten bertaratatukoei. “Eskuan margoa hartu eta paperaren gainean astin-



Ikasturtean zehar egindakoa gurasoei erakustea da gure helburu nagusia”

du behar da hau egiteko”, zioen Ander Tellok, eskuekin keinuak eginez. Tenperak, akuarelak eta errotulagailuak erabiliz egin dituzte margolanak, paper edo kartulina gainean gehienak, baina baita harriak edota bonboi kaxak koloretzatuz ere.

“Oso lan polita egin dute, denak ezberdinak. Agerian geratzen da, umek ez ezik, beste norbaitek ere lan handia egin duela erakusketa hau egiteko. Oso txukun dago dena. Askotan galdetzen nion nire buruari zertarako behar ote zituzten bonboi kaxak, kartulinak edo bestelakoak, hemen ikusten dut emaitza”, azaldu zuen harri-duraz Aitziber Mendiolak.

TALDEKAKO ETA BANAKAKO LANA

“Ikasturtean zehar taldeka edota banaka egindako margolan asko genituen eta lan horri

guztiari irtenbide bat ematea pentsatu genuen. Haurrek gozatu egiten dute egindakoa erakusten. Margotzen hastera goazenean, gauza ezberdinak egiteko eskatzen diet beti, margolan gehienak ezberdinak izan daitezen. Hemen ikusten da egindakoa”, azaldu zuen Maikarrek.

Iraide, Manex, Xuban, Ander A, Ander T., Aitor, Uxue, Nahia eta Ayala izan ziren eguneko protagonista nagusiak. Pozik ibili ziren erakustaretoan, batera eta bestera, zintzilikatutako lanak erakutsi eta bakoitzak zein margolan egin zuen azaltzen. Etxera joan aurretik, irakaslearen inguruan bildu ziren artista txikiak, gurasoen iritzia jakin nahian. “Asko gustatu zaigu. Lan handia egin duzue”, erantzun zuten ia aho batez erakusketara gerturatu zirenek.

Arratsaldean, beste guraso eta senidearteko talde baten bisita jaso zuten. “Bi deialdi egin ditugu, ordutegi ezberdinak dituztenei aukera emateko. Orain, aste osoz izango dugu zabalik erakusketa Kultur Etxean”, azaldu zuen Maikar Iurramendi irakasleak.



Artisten eskutik ikusi zuten gurasoek erakusketa.

Senideak, sakabanak

Hogei urte igaro dira sakabanaketa politika abian jarri zenetik.

Presoen senideek sarritan adierazi dute politika horrekiko euren ezadostasuna, errepidean bizi duten etengabeko arriskuagatik nahiz bidaien kostu ekonomikoagatik, besteak beste. Berriki, dispartzioaren aurkako bira egin dute Euskal Herriko herrietan barrena. Eskualdeko hainbat presoren senitartekoek hitza hartu dute.



JONE ETXEBERRIA

Julen Zelarainen neskalaguna
Amasa-Villabona

1. Julen 2008ko irailean atxilotu eta berehala Huelvako espetxera eraman zuten, herriatik ia 1000 kilometro eta, bertan jarraitzen du. Urruntzeak ez gintuen sorpresaz harrapatu. 9 eta 2 urteko seme-alabak ditugu eta Espainiako gobernuak historikoki nahiz egun euskal herritarrenganako erabiltzen duen krudelkeria kontuan iza-

nik, bagenekien Julen espetxeratzeaz gain, famili harremanak oztopatzen saiatuko zirela. Alferrik, Juleni astebururo egiten baitiogu bisita eta horretan, hainbat jenderen laguntza izugarria izaten ari da. Lagun horien elkartasun etengabea ezin izango dugu nahikoa eskertu. Azken batean, Julen bera ere elkartasun jarrera horrengatik espetxeratu zuten. Izan ere, giltzapean zituzten euskal herritarrek gazte-gaztetatik izan dituen buruan eta bihotzean, eta horrek Anmistiaren Aldeko Mugimenduan bere ekarpena egitera eraman zuen. Horregatik daude Julen eta bere kideak espetxean, ez beste ezergatik. Erakunde armatuko kide izatearen aitzakiapean sartu zuten espetxera baina, Espainiako epaile, polizia eta politikoei badakite bidegabekeria egin zutela, zuzenbide penalean egindako oinarriarik ez duen injustizi galanta. Berdin zaie, inpunitate osoz jokatzen dute eta, azken batean, bidegabekeria zerrenda luze-luze baten adibidetxo bat besterik ez da Julen.

2. Sakabanaketa mendeku politikan oinarritzen da, ez beste ezertan. Presoa giltzaperatuta edukitzeaz gain, suntsitu egin nahi da. Diktadura garaiko fusilatzeak irudi demokratiko eskasekoak liratekeenez, erailtze edo fusilatze luzeagoa ezartzen zaie presoei, ezkutukoa, gizar-

1. Zein da espetxeratutako senidearen egoera?

2. Zein iritzi duzu sakabanaketa politikaz? **3.** Etorkizunari begira zer diozu?



Sakabanaketarekin amaitzea lehen urratsetako bat beharko luke, elkarrizketa giroa topatzeko

tea ez ohartzeko modukoa. Bide batez, presoaren senide eta lagunei sufrimendua handitzeko pentsatuta dago, presoekin harremanak zailduz eta oztopatuz, Euskal Herriarekin duten harremana erabat etengo dute-lakoan.

Julen Euskal Herriko espetxe batean egongo balitz, seme-alabek astero ikusiko lukete baina, hilean behin besterik ezin dute joan: haurrentzat bidaia ez baita batere samurra.

3. Momentu honetan itxaropen handirik edukitzea zaila den arren, beti dago esperantza. Frantzia eta Espainiako estatuetan defizit demokratiko itzela dago eta hori aldatzeko prest ez dauden bitartean, nekez egon daiteke konponbiderik. Kontzeptu demokratikoetan sakondu behar dute alde guztiek, baina ariketa hori, bereziki, Europako herri zaharrenari bere etorkizunaz libreaki erabakitzeko ahalmena eragozten dioten Frantzia eta Espainiako gobernuak egin beharrekoa da. Borondate demokratiko hori egongo balitz, elkarrizketaren bidez aferak nahiko erraz konponduko lirateke eta presoan saka-

banaketa politikarekin amaitzea lehen urratsetako bat beharko luke, elkarrizketa eta elkar ulertze giroa topatzeko.



ITZIAR GARMENDIA
Mikel Garmendiaren arreba
Amasa-Villabona

1. Martxoaren 4an atxilotu eta 6an espetxeratu zuten Mikel Soto del Realeko espetxean. Apirilak 18ra arte isolamenduan egon da Sotoko espetxean. Hiru orduko patioa izaten zuen goizetan eta gainerako 21 orduak ziegan pasatzen zituen. Hiru ordu horietan beste preso batzuekin egoteko aukera izan du, gainerakoan, bakar-bakarrik egon da. Apirilaren 18an Sototik atera eta asteburua Valdemoron igaro ondoren, Herrera de la Manchán dago egun. Kezkatuta zegoen guretzat bidaia luzeagoa delako baina, era berean, lasaigo dago: beste kide batzuekin batera dagoelako. Familiako kideak astebururo joan gara eta aurrerantzean, lagunen bisitak onar-

Sakabanaketaren inguruan



Mila Izeta eta Lurdes Azurmendi.

tu dizkietenez, positiboa izango da berarentzat lagunak ere ikusi ahal izatea. Espetxe barruko bizitza normala egin dezake orain. Hantxe dago, zain. Lehen egunean bezala gaude, sumarioa sekretupean dagoela. Egun, oraindik ez dakigu zer leporatzen dioten, prentsan atarra dena besterik ez: lagun bati furgoneta utzi izana.

2. Espetxeratua izatea bada nahiko zigor, zer leporatzen dizuten jakin gabe, gainera. Horrenbeste urruntzen dituztela ikustea, presoarentzat izugarritzko presio psikologikoa da senide eta lagun bidaiei begira. Presoari bezala, familiari eta lagunei jartzen zaien zigor handia da sakabanaketa. Espetxeratzearekin ez baita presoak bakarrik zigortzen, senideak eta lagunak kilometro asko egitera zigortzen gaituzte. Horrek presio psikologiko, fisiko eta ekonomikoa suposatzen du. Ekonomikoki edo fisikoki ezin duelako, beren senideak bisi-

tatu ezin dituen jendea ere badago. Eta azken batean, norberaren eskubidea da senidea ikusi ahal izatea. Bestalde, presoak urrun egon arren, bisitarik gabe utziko ez ditugula argi daukagu senideok eta horrenbeste kilometro egiteko gai nola garen ulertzen ez dutela uste dut. Alde horretatik, beraz, ez dut uste helburua lortu dutenik.

3. Preso politikoei ustea denez, zorroztan ari direla ikusita, aldaketarako asmo gehiegirik dagoenik ez zait iruditzen. Sakabanaketaren ondorioak leundu beharrean, okertzen ari direla esango nuke. Momentuz behintzat, epe motzean ez dut ikusten konponduko denik. Bestalde, azkena atxilotutako Manex eta Mikel oso ezagunak eta maitatuak dira herrian eta babes handia jaso dugu kolore guztietako jendearen aldetik. Eskertzekoa da hori, alderdi guztietako jendea hurbildu baitzaigu laguntza eskainiz.



Sakabanaketaren bidez preso kolektiboaren indarra eta batasuna apurtu nahi dute, baina ez dute lortu


Herritarrek badute borondatea baino soluzioa gorago dabil-tzanek bilatu behar dute. Presoak zerbait egin badu eta legeak agintzen duelako zigorra bete behar badu, bete dezala etxetik gertu.

MILA IZETA

Mikel Egibarren neskalaguna Zizurkil

1. Algecirasko presondegian dago Mikel, beste hamabost euskal presoekin batera. Abendutik hona, euskal presoekiko presioa handitzen joan da Algecirasen. Bereziki, funtzionario talde batek hartutako jarrerak, egoera gogorrek sorrarazi ditu eta behin eta berriz, berez dagozkien eskubideak ukatu dizkiete euskal presoek. Esaterako, Arkaitz Bellon presoak jipoitu zuten duela hilabete gutxi eta ziegetan miaketa ugari egin dizkiete guztiei ere. Egoera geroz eta kaskarragoa zen eta sortutako ezinegon horren ondorioz, apirilaren 27an gose greba hastea erabaki zuten. Hiru egunez luzatu zen gose greba eta orain, garbitasun eta higiene greba egiten ari dira. Erantzun gisa, bost preso espetxez aldatu zituzten joan zen asteburuan, senideei abisurik eman gabe.

Etxetik 1200 kilometrora



dago Mikel eta autobusez joanez gero, 18 ordu behar izaten dira. Horregatik, hegazkinenez joaten gara gehienetan. Malaga edo Sevilleira joan eta auto bat alokatzen dugu Algecirasera joateko. Astean, berrogei minutuko bisita izaten du Mikelek. Horrez gain, ordu eta erdiko bisabis familiarra eta beste ordu eta erdiko bisabis intimoa dugu. Hiru hiletik behin, lau orduko konbibentzi bisabisa ere bagenuen, baina seme nagusiak hamar urte bete zituenen kendu egin ziguten.

2. Sakabanaketa bikoitza egiten dela iruditzen zait. 741 preso politikoa hainbat espetxetan barrena banatuta daukete, kolektiboaren indarra apurtu asmoz. Samin handia sortzen dute barruan eta kanpoan. Baina horrez gain, espetxe bakoitzean ere sakabanaketa ematen da; isolamenduzko moduloak antolatzea, bisitak ordu ezberdinetan ematea, edozein ekimen antolatutakoan kideen arteko harremana eki-

1. Zein da espetxeratutako senidearen egoera? 2. Zein iritzi duzu sakabanaketa politikaz? 3. Etorkizunari begira zer diozu?

ditea... Preso dagoenarentzat karga erantsi bat da; etengabe darabil buruan familiakoak zer moduz iritsiko ote diren eta senide edota lagunentzat ere gogorra da, baina hala ere, bisitarik gabe inoiz ez uzten saiatzen gara.

Sakabanaketaren bidez preso kolektiboaren indarra eta batasuna apurtu nahi dute, baina ez dute lortu.

3. Presoak eta errefuxiatuak etxean edukitzeko, gizarte osoak mugitu beharko luke. Independentziarako bidean funtsezkoak dira euskal presoak, eta beraiek Euskal Herrian izatea guztion lana da. Batzuetan, ziurrenik nekearen eraginez, jendearen inplikazio falta sumatzen da, baina hala ere, euskal herriko biztanleriaren gehien-goaren nahia euskal presoak etxean edukitzea dela uste dut eta horren alde lan egin behar da.



Dispersioaren aurkako biran, Amasa-Villabonan apirilaren 16an eginiko ekitaldia.

LURDES AZURMENDI
Ander Gerestaren ama
Zizurkil

1. Moulinseko espetxean dago Ander, Parisetik 200 kilometrorra. Han ere egoera gogortzen ari da. Otsaila inguruan bi presok espetxetik ihes egin zuten eta horren ondorioz kontrol neurri zorrotzak jarri dituzte. Horien artean, eskubideak

urratzen dituzte neurriak hartu dituzte. Esaterako, patiora ateratzeko debekua, etengabeko miaketak, polizia berezien joan-etorriak, espetxera zenbait gauza sartzeko debekua... Espetxeko zuzendariaren hitzetan behin-behineko egoera da, baina luzatzen ari da. Preso sozialek ere indar egin dute egoera alda zedin eta aurrerapauso batzuk eman badituzte ere, egoera ez da erraza.

Astero ditugu bisitak, larunbat eta igandez. Ander, hemen-dik 740 kilometrorra dago eta bidaiak denbora asko kentzen digu, horregatik, bisitak ez ditu nahi adina luzatzen. Trenez ezin dugu joan eta hegazkina ere ez da aukera ona, espetxetik 200 kilometrorra geratzen garelako. Horregatik, autoz egiten ditugu joan etorri guztiak.

Bestalde, anaia eta koinata ere espetxean ditut, Granadan. Duela gutxi arte elkarrengandik aldentuta zeuden; anaia Granadan eta koinata Madrilén. Ezkondu gabe egoitean ez zituzten familia gisa hartzen. Guk ezin genuen koinata bisitatu arrazoi beragatik. Lau hilabeteko alaba txikia dute eta guk oraindik ez dugu ikusteko aukerarik izan. Argazkia ateratzeko baimena eska-

tu dute, baina maiatza arte itxaroteko esan zieten.

2. Sakabanaketa gogorra da, barruan daudenentzat eta kanpokoentzat. Bisitak egiteko kilometro askotako bidaiak egitea suposatzen du. Barruan daudenek kezka izugarritz bizi dute hori. Etxekoak edo lagunak errepidean dabiltzala jakiteak ezinegona sortzen die.

3. Etorkizunarekiko itxaropena beti mantendu behar da, baina hankak lurtean edukiz. Presoen eskubideen aldeko borrokan gizartearen inplikazioa behar da eta ez da erraza. Pausoak emateko beldur pixka bat badagoela sumatzen dut.

AROA ARRIET
Arkaitz Lavegaren neskalaguna
Andoain

BEÑAT JAUREGI
Etxerat
Andoain

1. Aroa: Une honetan Alicanteko Villena espetxean dago preso Arkaitz. Irailean zazpi urte beteko ditu. Aurretik, Madrilgo Soto del Real eta Navalcarneroeko espetxeetan egon zen. Epaitu eta kondenatu zutenean Alicanterara eraman zuten. Alicanteko espetxea, Soto-koaren antzera, oso zorrotza da arauari begira: egunean lau orduz ateratzen da patioara, eguneroko irakurgaiak kontrolatu egiten dizkiete...

2. A.: Ardura handia da bai guretzat, baita beraientzat ere. Dauden lekuan egonda, euren bizitzari aurre egin behar die eta kezka handia bizi dute: oso urrun egonagatik, astebururo joaten baita jendea bisi-

BETERRI-AIZTONDOKO PRESOK

AMASA-VILLABONAKO PRESOK

- **Manex Castro:** Valentzia (Picassent). 640 km.
- **Eneko Galarraga:** Toledo (Ocaña II). 546 km.
- **Mikel Garmendia:** Herrera de la Mancha (Ciudad Real). 650 km.
- **Iñigo Guridi:** Granada (Albolote). 882 km.
- **Joxe Mari Olarra:** Granada (Albolote). 882 km.
- **Emilio Salaberria:** A Coruña (Curtis). 963 km.
- **Julen Zelarain:** Huelva (Huelva II). 993 km.
- **Oskar Zelarain:** Madril (Alcala Meco). 444 km.
- **Pello Zelarain:** Alicante (Villena). 728 km.

ANDOINGO PRESOK

- **Arkaitz Lavega:** Alicante (Villena). 760 km.
- **Axier Oiartzabal:** Moulins Yzeure, Cedex (Les Godets) 710 km.
- **Ainhoa Ozaeta:** Genevieve des Bois (Fleury Merogis). 911 km.
- **Juan Joxe Petrikorena:** A Coruña (Curtis). 963 km.

ZIZURKILGO PRESOK

- **Mikel Egibar:** Algeciras (Botafuego). 1.200 km.
- **Ander Geresta:** Moulins Yzeure, Cedex (Les Godets) 710 km.



Aroa Arriet eta Beñat Jauregi.

tak egitera –senitarteko zuzenak izan edo ez–. Sakabana-keta astakeria da: gastu ekonomikoa izugarria dakar eta senide eta lagunok horrelako pasada hartzerik ez dugu merezi. Dispersioarekin ez da pertsona bat zigortzen, baita inguruko guztiak ere. Ni epaitu eta kondenatu ez nauten arren, zigortuta sentitzen naiz.

Beñat: Sakabanaketarekin preso txikitzea bilatzen da. Alde batetik, preso urrunduz, baina, hori nahikoa ez dela ikusita, ahalik eta oztopo gehien jartzen saiatzen dira ingurune sozialetik eta familiagatik gehiago banatzeko. Dispersioak sufrimendua areagotu egiten du baina ez du helburua lortzen.



Ni epaitu eta kondenatu ez nauten arren, zigortuta sentitzen naiz”

A: Espetxeak presoak akabatzeari lortu duen egoerak badaude eta horrek oso gogorra izan behar du familiarentzat. Arkaitz urrun badago ere, beste kasu batzuekin alderatuta, arina da egoera. Gaixotasunak medio, jende asko oso egoera larrian dago.

3. A: Ilusioz betetako une bat egon bazen ere, espetxe barruan estutzen jarraitu zuten. Tregua garaian, esaterako, jende asko sakabanatu zuten. Espetxeko egoerari dagokionez, ez dut etorkizun onik ikusten.

B: Epe laburrean ez dut uste onurarik egongo denik. Estatuak daukaten politikarekin

gehiago estutzen jarraituko dutela dirudi.

A: Errazena egin dute, guztiak zaku berean sartu eta hitz egiteko aukera kendu.

B: Modu horretan ez dago diskusiorik, ez dago debaterik. Preso daudenak ez dira pertsonak ere, terroristak dira eta kito.

A: Espetxeratzeko, berdina da ekintzaile armatua izan edo politikaria izan. Dispersioa bezala, zentzugabekeria hutsa dira epaiketa ugari ere. Injustizia asko dago inguruan.

B: Egoera honekin bukatzea borondate politiko kontua da. Agintariak benetan egoera honekin bukatu nahiko balute, nahi-ko erraza litzateke kontua.

A: Atzean, ordea, interes ekonomiko handiak daude. Estatuarentzat izugarritzko txollosa da dispersioa mantentzea. Momentuz ez dut egoera aldatzeko inolako borondatearik ikusten.

Motorraren Gida

Faxa 943-300604 **mendi**
AUTOESKOLA
Agustin Leiza 11 - 20140 Andoain

Karrozeria ZULEN
Elbarrena auzoa. 7. Industrialdea
943 693 046. Faxa: 943 694 310
8 eta 9 pabilioiak. 20150 Aduna

Tel.: 943 69 60 61
Faxa: 943 69 61 79
TRANS-ERNIO-GIPUZKOA
Urtaki industrialdea. 40. pabilioa
20150 ADUNA (Gipuzkoa)

Bengoetxea
autoeskola
Andoain 943 594 406. Villabona 943 690 057

IBAI-ONDO
GARBIKETAK
943 692 256
Industrialdea, 16. 20.170 Irura

ARGI Bulandegi Bidea
15 Industrialdea
Karrozeria
Zizurkil
943 692 513
Faxa: 943 693 569

ZABALAGA
TAILERRA
automobilaren mekanika orokorra
Tel.: 943 300 169
Ama Kandida DENAC
industrialdea 203 Pabilioa
20140 ANDOAIN

AZKAIN Motoak [ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 12. **943 591 413**
KARRIKA Auto konponketa
[ANDOAIN] Ubilluts. 56 Pol. 10. **943 300 214**
URPA Autobusak
[ANDOAIN] **666 489 010** (24 ordu) **943 305 050** (Garajea)

Garbitokiak, emakume

Andoaindar askoren ezusterako, garbitoki bat agertu da Nafarroako zubiko azpialdean, Leitzarano ibai ertzean. Burdina taldeak berreskuratu du ezkutatuta zegoen garbitoki hori.

Nafarroa zubiko azpialdean dauden bi garbitoki zaharretako bat zaharberritu du berriki Burdina taldeak. Ingurua txukunduta, arropa garbitzeko Zumea auzoko arbasoek erabiltzen zituzten bost harrien erreplikak jarri dituzte.

Jose Ramon Berrondo taldeko kideak adierazi duenez, “hiru egun eman ditugu berreskuratzeko zereginetan. Lanik zailena bost harriek eman digute. Plano zaharrak ikusiz, harri horien neurri berean mozten eta ipintzen saiatu gara. Erreplikak Regino Otaegik eman digun harlauzarekin egin ditugu; harlauza hori Txitibar baserri zaharrean zegoena da”.

Bildu diren 18 bolondresek garbitokia bera txukundu egin zuten lehenbiziko bi egunetan, eta hirugarrenean, berriz, hormaren kontra doan kanal antzekoa garbitu zuten. “Badirudi kanal horrek ura ekartzen zuela garbitokira, eta arropa zikina beratzeko uzten zutela bertan emakume garbitzaileek”.

Karobi eta Plazaolako tren-txikiko eraikuntza zaharretan ez ezik, garbitokietan ere begiak jarriak ditu Burdina taldeak, beraz. Andoaingo garbitokiei buruzko agiri ugari bildua du. Iturri hori eta herritarrek eman dezaketen informazioa erabi-



Burdina taldeko bolondres taldea, pozik Leitzarango garbitokietako bat zaharberritu eta gero, joan den apirilaren 25ean.

liz, bolondres lanari ekingo dio Burdinak hurrengo urtetan. Leitzarango ibaian bertan, Nafarroa zubiko azpialdean dagoen bigarren garbitokia txukuntzeko gogoia ere adierazi bazuen ere, Andoaingo Udalak bere gain hartuko duela jakinarazi dio taldeari. Santa Krutzeko zubitik hasita, Otieta-rainoko bidegorriaren egitasmoaren barruan sartu du berreskuratze lan hori Udalak.

EZINBESTEKO TOKI PUBLIKOAK

Puntako teknologiaz inguratuta bizi den gizakiari kosta egiten zaio garbitokiek atzoko gizartean betetzen zuten ezinbesteko funtzioa sinestea.

Hara bi adibide garbitokiek eta halako batean horiek atzean uzteak gizarteari zenbat eragin zioten erakusten dutenak. Garbigailua ala antisorgailua, zein izan den garrantzitsuagoa emakumearen emantzipazio prozesuan; halako eztabaidak maiz ematen dira oraindik. Mariano Ferrer



Udal agiriak eta herritarren informazioa erabiliz, lanari ekingo dio Burdinak aurrerantzean”

irradi-esatari ohiak ere behin inkestatxoa egin zuen entzuleen artean, XX. mendean teknologiak ekarri zuen aurrerapenik pozgarriena izendatzeko. Ez autoa, ez telebista eta ez halakorik..., garbigailua aipatu zuten gehienek.

ANDOAIN, GARBITOKIEN HERRIA

Andoaingo Udal artxibategian dauden agiriei eta herritarrik zaharrenek emandako testigantzei esker badakigu Andoainaren makina bat eraikin izan zela, herri barnean zein baserri inguruetan.

Etxeberrietako atzealdean bat, Ziakoko ubidean bi, Zumea kalean hiru, Olajauneko azpialdean bat, Goiko Plazan bat, Karrikan bat, Galar-

din bat... Horietatik aparte, konta ezin ahala ziren baserri inguruetan kokatzen zirenak, batzuk etxeok bakarrik erabiltzeko, besteak auzolanean jarritakoak. Handienak herriko garbitoki publikoak izaten ziren, seitek hamar harri bitartean izaten zituztelarik. Ia denek estalpea edukitzen zuten eurrarako eta ingurutik zetozen errekaetako edo iturriak probesten zituzten. Maiz, abereek edateko askak ere izaten zituzten ondoan.

Aita Subijana enpresako atezaina zuen Adela Ruiz de Larri-nagak ondo gorde du gogoan egunero arropa garbiketan Etcheberrieta auzoan aritzen ziren emakumeen ohiko estampa. “Lehengo emakumeentzat etengabeko lana izaten zen arropa garbitzea batetik, eta basotik sutarako egurra ekartzea bestetik”.

Migel eta Kristina Irazusta ospe handia izan zuen Inazio Tabernako anai-arrebak dira, Zumea Kalean. Herrian zen garbitokirik handi eta ederre-

langileen topagune

na euren tabernaren pare-parean kokatzen zen. "Orain taxia egoten den horretan zegoen. Luzea eta zabala zen, eta bederatzia bat harri izango zituen. Baltzuketatik zetorren erreskatoko eta ondoko iturriko urak hartzen zituen. Mutil koskorrak ginela zenbat jolas egindakoak garen han! Gaixakeriatan, askako tapoia kentzen genuen, garbitokia dena tantarik gabe utzi arte. Gero emakumeak garbitzera etortzen zirenean, gozoak jartzen ziren!".

50eko hamarkadaz geroztik garbigailu elektrikoa merkaturatzen hasi zen. Etxe gehienetan hasi zen sartzen, eta horrek, garbitokiaren gainbehera ekarri zuen. Zumea eta trenbidearen artean zegoen aipatu garbitokia 60ko hamarkadaren hasieran bota zuten, Migel Irazustak gogoan duen bezala: "Euskadiko Kutzako bulegoa daukan etxe eraikuntza hori egitearekin batera ken-



Etxamuno baserriko garbitokia hiru harri dituen da; Jexux Larrea zenak urtetan zaindu zuena, Andoain den ikusgarriena izango da.

du zuten. Garbigailua izango zen etxeetan oraindik, baina jada garbitoki hartara inor ez zen hurbiltzen; emakumeek etxeetako arrasketan egiten zituzten garbiketak".

TOPAGUNE, GIZARTE HARREMANETARAKO

Arropa astindu eta astindu, hamaika emakumek osasuna utzi zuten garbitoki horietan. Baina zoritxarrerako ez ezik, kanta eta alaitasunerako gune ere bilakatu ziren garbitokiak. Adela Ruiz de Larrinagak eguneko bizitza sozialerako bi une

azpimarratzen ditu, garai haiek gogoratuz: "egunez bazterretan ziren berrien jakinaren gainean jartzeko bi toki ziren apartak: garbitokiak egunez, eta ilunabarretan berriz, etxe-ko aulkiak kalera atera eta denak eserita koadrilan jarrita sortzen ziren tertuliak". Hain zuzen, Burdina taldea lanean ari zela hiru bertso eskuan zituela agertu zen auzotar bat. Zenbait auzotarren goitizenak aipatuz, emakumeek garbiketaren kantatzen zituzten hiru bertso zirikatzaileak dira horiek:

Aingurasutegi
Erbia gisatuta
Kapoia erreta
Xoxua ez da txarra
Mantekas beteta
Gabrielek gitarra jo ta
Manuelek tronpeta
Xeko dantzan jarrita
Orra naiko festa.

Lengoan egondu naiz
zubitik begira
atso moskor batzueri
Aingurasutegira.
zer ote zebiltzen an
Jira eta bira.
Txarro motzak artuta
sagardotegira.

Asi goiko kaletikan
beko kaleraño,
ez omen da gizonikan
beste iñor au baño.
Zein ote da ba ori
orren famatuba.
Alejoren semea
moskor berritsuba.

ORMENDI
KIROLAK

Udaberri-udako
kolekzio berria

Kale Berria, 2 - Tel./Faxa: 943 591 806
20140 Andoain (Gipuzkoa)

Deskantsurako zapatak, kosmetika
naturala, ilearen azterketa eta
tratamendua

XIXORI



BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 • ☎ 943 590 199 • ANDOAIN
Txitibar, 4 • ☎ 943 245 023 • ANDOAIN

Pilotaleku berria, zabaltzeko prest

Duela hiru urte, pilotaleku berria egiteko lanak jarri zituen abian aurreko legealdiak. Hainbat hutsune direla eta lanak luzatu egin badira ere, zabaltzeko prest dago jada.

Errebote plaza eta Amasako pilotalekuaz gain, pilotaleku estali berria martxan izango da Villabonan laster. Txukunketa eta garbiketa lanekin amaitzea besterik ez da falta gune berria herritarrei zabaltzeko. Herriaren erdigunean kokatuko da, Mintzola etxearen atzealdean. Aurreko legealdian jarri ziren abian pilotalekua egiteko lanak eta, ageri-



Ezinduei pilotalekuko sarrera ahalbidetzeko, plataformadun igogailua jarri da.



Pilotaleku berria herriaren erdigunean kokatuko da, Mintzola etxearen atzealdean.

koa denez, eragileek aurreikusi baino gehiago luzatu da. Errebote plazako frontoia botatzerako pilotaleku berria eraikitzeko asmoa bazen ere, alderantziz gertatu da; “plazako frontoia bota eta gero eraiki da pilotalekua”, adierazi du Julito Iturbe zinegotziak. Hasiera batean, gainera, ezinduentzat egokitu gabe eraiki zen pilotalekua eta barrura sartzeko eskailerak jaitea beharrezkoa denez, plataformadun igogailua jarritz konpondu dute hutsegitea. Igogailua jartzea ez da Udaleko kideentzat konponbiderik onena izan, baina ezer baino hobea dela adierazi dute. “Gaiari irtenbidea bila-

tu nahian ibili gara eta azkenean, aukerarik onena igogailua jartzea zela erabaki genuen”, azaldu du Iturbek, “pena izan da arazo hori eraikina egin eta gero sortzea. Asko atzeratu dira lanak baina gainerakoan, polita eta txukuna geratu da pilotalekua”. Inguruko etxe berri guztiak bezala, Aburuza konstruktoreak eraiki du pilotalekua ere.

PILOTA TRADIZIOARI EUTSIZ

Aurrerantzean, beraz, errebotean jokatzekeo betiko tokia mantenduko da Villabonako Errebote plazan baina, horrez gain, herrian hain errotuta dagoen pilota tradizioari eus-

“Asko atzeratu dira lanak baina gainerakoan, polita eta txukuna geratu da pilotalekua”

teko bi pilotaleku izango dira: Amasakoa batetik eta pilotaleku berria bestetik. Eskuz, palaz nahiz joko-garbin jokatzekeo egokiak biak ere. Pilotaleku berriak aldagelak dauka azpialdean eta baita bildegia ere. Ikusleentzat egokituta, egurrezko eserlekuak ditu eta estalkiaren oinarria ere egurrezkoa da. Behar-Zana pilota eskolako pilotariez gain, herritar guztientzat irekia izango da pilotalekua.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Frontoi zaharrean zegoen grabatutako antzinako harri bera itsatsi dute pilotaleku berrian, eta ondorioz, oraingoak ere Behar Zana izena izango du, aurrekoak bezala. Ekainaren 6an, larunbatarekin, Behar Zana pilota elkartearen urteurren ospakizunen baitan inauguratuko da ofizialki pilotaleku berria. Pilota eskolako pilotari gaztetxoetatik hasi eta helduetara, hainbat partida eskainiko da. Tartean baita joko garbiko partidaren bat ere.

ZINEMARI AGUR, URRIA BITARTE

Maiatzaren 16 eta 17an nahiz 30 eta 31n haur eta gaztetxoei zuzenduta bi film eskainiko badira ere, urria bitarte ez da helduentzako pelikularik eskainiko Gurea zineman. Film emanaldiak eten arren, antzerki nahiz bestelako kultur emanaldiekin aurrera jarraituko dutela jakinarazi du Hau-

tsi Izagirre kultur zinegotziak. Eguraldia hobetzearekin batera zinemara gerturatzen den jende kopuruak behera egiten duenez eta ekonomikoki gastuei aurre egitea zaila delako hartu du erabaki hori Udalak. Hala ere, bideragarria den heinean, urrian berriro ekingo zaio zinemako jardunari.

EKIMEN UGARI, EUSKARA ZERBITZUTIK

Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du. Lehen bi sarietaz gain, villabonatar nahiz gazte onenarentzako sariak egongo dira aurten ere. Maiatzaren 13an bukatuko da Udaleko Euskara Zerbitzuan gutunak aurkezteko epea. Era berean, 2006 eta 1999 urteen artean jaiotako

haurren eta gaztetxoen zuzendutako udaleku irekietan izena emateko aukera maiatzaren 14an amaituko da, baita udaleku irekietan begirale modura lanean aritzeko Euskara Zerbitzuan curriculumak aurkezteko epea ere. 18 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea dira horretarako baldintzak.

Herritarrak Aurresku eta Soinu Zahar ligan

Oinkari dantza taldeko hamabost dantzari gaztetxok Aurresku eta Soinu Zahar ligan hartu dute parte, ikuskizun dotorea eskainiz.

Duela urte mordoxxa jarri zen abian aipatu liga baina, Amasa-Villabonakoak aurkeztu diren lehen aldia izan da aurtengoa. Oinkaritik bi mutil eta hamahiru neska aurkeztu ziren ligara eta beste herrietatik ere parte hartzea handia izan denez, bi mutilek eta bi neskek eskuratu dute datorren maiatzaren 16an mutilek Errenterian 17:00etan eta maiatzaren 17an neskek Legazpin 11:00tan jokatzeko duten finalerako txartela. Finalean izango diren Axier Iriarte, Ane Urruzola, Beñat Monfort eta Lierni Kamiok euren bizipenak azaldu dituzte.

BAKARKA, ERRESPETOA

Esperientzia polita izan da dantzari entzatzat Aurresku eta Soinu Zahar ligan parte hartzea. Neskek, dantzatu aurretik oso urdu-ri jartzen zirela aipatu dute, mutilek berriz, lehen egunean sentitu zutela batik bat urduritasun hori. Taula gainean bakar-ka dantza egin beharrak errespetua ematen duela ere azaldu dute, gehienetan behintzat, taldean dantza egitera ohituta bai-



Lierni Kamio, Ane Urruzola, Beñat Monfort eta Axier Iriarte, Malkar plazan.

taude. Ligan parte hartzeko asko entseatu dute, “gelditu gabe aritu gara dantzak prestatzen”. Mutilen kasuan, Desafioan betiko pausoak dantzatu dituzte baina, Zortzikokoan pauso berriak landu dituzte Edu Muruamendiaraz koreografoarekin. Nesken artean, egunero hobetzen joan direnez, aurkeztu beharreko dantzen pausoak zaildu egin dituzte. Kanporaketetan bezala finalean, ahalik eta ondoen dantza egiten ahaleginduko direla adierazi dute, “jende asko egongo dela pentsatzen dugu, ea ez garen asko urduritzen”.

SUELTOKO TXAPELKETETARA

Oinkariko kide Hodei Arrastoa eta Ainhoa Olano nahiz Julen Rodriguez eta Alaitz Urkizu bikoteekin batera, sueltoko txapelketetan ere parte hartuko dute Axier, Ane, Beñat eta

Liernik. Fandangoa eta arin-arina erakustera Lurdes Esnola irakaslea etortzen zaie. “Astean zehar Oinkari taldeko bi entsegu izaten ditugu. Fandangoa eta arin-arina aukurazkoa izaten da baina, ia denak etortzen gara”, argitu dute. Maiatzaren 1ean Lazkaoko txapelketan hartu zuten parte. Aurrera begira, Bergaran, Lezon nahiz Amasa-Villabonakoan izango dira. “Villabonakoak uztailaren 26an izango da, herriko festetan”. Helduen taldeko bi bikote Segurako txapelketara begira ari dira entseatzeko.

HOLANDARA ETA MURTZIARA UDAN

Oinkariko emanaldi gehienak udan zehar izaten dituzte: aurtengo, besteak beste, Olazagutian eta Santio jailetan. Aurretik, ordea, gaztetxoek Holanda-



Kanporaketetan bezala finalean, ahalik eta ondoen dantza egiten ahaleginduko gara

ra joango dira hamar egunerako. “Dantza emanaldiak eskaintzeaz gain, ekintza ezberdinak egiteko aukera izango dugu”, azaldu dute pozik dantzari gazteek. Duela bi urte Danimarkan bezala, aurtengo ere beste zortzi herrialdetako kultura eta ohitura ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute.

Gaztetxoek taldea ia 60 dantzari osatzen duela adierazi du Oinkari dantza taldeko arduradun Eneko Arteagak, eta ondorioz, banatu egingo direla kanpoan eman beharreko emanaldietarako, “gaztetxoek taldeko 26 dantzari Holandara joango dira; gainerakoak, helduekin batera, Murtziako jaialdira”.

TXERMINGO GANBARARA

Txermingo ikastolako ganbarako obrak zirela eta, Gabonak geroztik Gureako erakusgelan entseatu dute Oinkariko kideek. Lanak bukatuta, Txermingo ganbaran biltzeari ekingo diote berriro. Joan zen asteburuan taldekideen artean txukundu eta margotu zuten ispilu luzeagoa eta egurrezko zorua izango dituen gune berritua.



PEZEIZA

Pertsianak, motorizazioa eta ate metalikoak

www.ezeiza-pertsianak.com

Asteasu

943 690 821

Andatzako Estazio Meg

Altxor berezia gordetzen da Andatza mendiaren inguruan. Duela 5000 urte inguru eraikitako hamar trikuharri seinalaztatu dituzte Zizurkil, Aduna, Andoain, Aia, Zubieta eta Usurbilgo lurretan banatuta.

Kobre Aro eta Brontze Aro garaian eraikitako trikuharriak dira Andatzan eta hegoaldeko lurretan aurkitzen direnak. Belkoain eta Zarate Haitz mendien artean bizitu ziren giza taldeek eraiki zituzten, hildakoak ehorzteko. Hamar trikuharri; Arkutxa, Olaiko, Karamiolotz, Andatza I eta II, Loatzu I eta II, Beldarrain, Zarateko Benta eta Belkoain. Baita zista bat ere: Andatza III.

EZAGUTU ETA BABESTU

Lurrailan enpresaren zuzendaritzapean egin dira Andatzako Estazio Megalitikoko seinalaztapen eta garbiketa lanak. Luis Del Barrio da enpresako zuzendaria: “Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondare Zentruak, 2002an jarri zuen martxan historiaurreko ehorzlekuen babesarako proiektua. Gipuzkoan, hogeita zortzi estazio megalitiko daude eta horiek babesteko pauso ezberdinak eman behar izan dira. Lehendabizikoa, trikuharri bakoitza seinalaztatzea izan da. Horren ondoren panelak jartzen joan dira estazio megalitikoetara iristeko bideetan. Andatzako estazioan, esaterako, bost panel jarri dira. Horrez gain, estazioaren nondik norakoak azaltzen dituen



Lapurtxulo inguruan daude, Andatza III zista (aurrean) eta Andatza II trikuharria .

12.000 eskuorri egin dira, udal-letxeetan banatzeko. Jendeari ondare hori ezagutaraziz, zer diren ulertaraziz, haiekin gozatzeta eta babestea nahi dugu”. Andoaingo Elkazabalen, Zizurkilgo Azarolan eta Ziortzan, Usurbilgo Biribillondon eta Aiaiko Mañarin inguruetan jarri dituzte panelak.

Andatzako Estazio Megalitikoan hamar trikuharri eta zista bat daude: “Trikuharria ehorzleku kolektiboa zen, hogeita hamar edo berrogei gor-

pu inguru izaten dute barruan. Mendeetan zehar erabiltzen zituzten ehorzketak egiteko, beraz, garai ezberdinak gorpuk hartzen dituzte. Zistak berriz, txikiagoak izaten dira eta gorpu bakarra hartzen dute. Lapurtxulo izeneko gunean ikus daiteke estazioko zista bakarra, Andatza II trikuharriaren ondoan”. Belkoain, Pagamendi, Etumeta eta Lapurtxulo inguruak interesgarriak dira monumentu megalitikoak ikusi ahal izateko.

JENTILEN HILOBI

Trikuharriak jentilen ehorzlekuak ziren ustea zabaldua egon da mende askotan zehar: “Uste horrek baliatu du ehorzlekuen mantentzea. Gizakia lehendabiziko bizilekuak eta txabolak egiten hasi zenean, harriak lortzeko bi aukera nagusi zituen: harrobira joan eta harria atera, edo mendian aurkitzen zituen harri piletatik hartu eta

eraman. Bigarren aukera hori zen errazena, baina bazen harri pila horiek ehorzlekuak ziren errezeloa eta badaezpada ere, ez zituzten guztiz desegiten. Pixkanaka, siniskeria horiek galtzen ari dira, baina duela oso urte gutxi arte, jende askok pentsatzen zuen trikuharriak jentilen hilobiak zirela”, azaldu du Luisek.



2001ean aurkitu zen azken trikuharria eta ez da baztertu behar besteren bat aurkitzea”

HERIOTZARI BELDUR

“Trikuharrien eraikuntza garaian, heriotzaren ondoren arimak bidaiatu egiten zuela pentsatzen hasi zen gizakia. Ari-mari bidaia hori egiten laguntzeko, gorpua ondoan elikagaiak, apaingarriak, zermikak..., jartzen zituzten. Ehorzteko modu horrek, trikuharriak desegin eta lapurretak egiteko tentazioa piztu izan du mende askotan zehar, horregatik, itxura nahasi samarra izaten dute gaur egun aurkitzen diren trikuharriek. Gainera, eraikuntza megalitikoren batean, gorpua batean urrezko txapatxo txikiak agertu izan dira. Aurkikuntza horiek, trikuharrien azpian urrezko kutxa eta kanpai handiak zeudela sinisterra eraman zuen jendea eta lapurretak areagotu egin ziren. Hala ere, heriotzari izaten diogun beldurak, hilobiak guztiz ez desegitera bultzatu du gizakia, eta trikuharriak mantendu egin dira”, azaldu du Luisek.

1954an aurkitu zuten Andatzako Estazio Megalitikoko lehen monumentua. Horrela azaldu du Luis del Barriok: “2001ean egin zen azken aurkikuntza eta ez da baztertu behar oraindik ere besteren bat aurkitzea. Trikuharriak, belar eta sasiz estalirik egoten dira eta batzuetan, ez da erraza izaten lehen begiratura identifikatzea”.

galitiko



**Trikuharria
ehorleku
kolektiboa zen,
hogeita hamar
edo berrogei
gorpu izaten dute
barruan"**

Lurrailan enpresaren ekimenez hainbat trikuharri txukundu eta garbitu dira azken urteotan, beti ere, Foru Aldundiko Landa Garapenerako Sailaren babesarekin. "Trikuharrien gainean zuhaitzak landatu izan dira. Horiek moztu eta ingurunea txukundu egiten da, monumentua agerian gera dadin".

Horrez gain, urtean bi aldiz garbitzen dituzte Andatzako Estazio Megalitikoko trikuharriak: "Udalek dute mantenimenduko garbiketa horiek egiteko ardura, eta eskertzekoa da horretarako egiten duten ahallegina. Arkeologo baten kontrolpean egiten dira garbiketa lan guztiak eta Foru Aldundiaren Kultura Sailaren baimena ere beharrezkoa da. Kontrol lan hori beharrezkoa egiten da, bestela, borondate onenarekin bada ere, harriak tokiz aldatzeko joera izaten delako. Trikuharri askok harri pila soilaren itxura dute gaur egun, eta garbiketa lanak egitera joaten

direnek, politago jartzeagatik, harrilauzak mugitu eta guztiok buruan dugun trikuharriaren itxura ematen diote. Hori gerta ez dadin, arkeologo baten kontrola beharrezkoa da", adierazi du Luisek.

TXIKIKETAK

Ondare historikoarekiko errespeto falta gertutik bizitu du Luis del Barriok: "Duela pare bat aste, Andatza II trikuharria alderik alde zeharkatu zuen norbaitek lau gurpileko motor batekin. Harri asko bere tokitik mugitu zituen. Gauza horiek ekidin behar ditugu ondarearen balioa azpimarratuz. Milaka urtetan iraun duen monumentu megalitiko minutu gutxitan desegin daiteke, horregatik nahi dugu jendeak eza-gutu eta errespeta ditzan. Mendiari balioa eransten dio monumentu megalitikoak bertan izateak".

INDUSKETEN ZAIN

Andatzako Estazio Megalitikoko hamaika trikuharrietatik bitan bakarrik egin dira indusketa lanak: "1965ean Altuna eta Apellaniz izeneko bi arkeologok egin zituzten indusketa lanak Zarateko Benta eta Andatza II izeneko trikuharrietan. Gezi puntak, zerami-

TALDE IZAERA ETA INDAR ERAKUSTALDIA



Trikuharriak, laukizuzen formako hilobi ganbara izaten zuten, hainbat harlauzaz eta zutikako blokez

osatura. Hilobia erabat estaltzen zuten harri eta lur pila izaten zuten gainean. "Askotan, trikuharria kokatutako lursailean aurki ez daitekeen harri mota erabiltzen zuten. Bi helburu betetzen zituzten hori eginez. Batetik, trikuharria ikusgarriagoa izatea lortzen zuten, eta bestetik, taldearen indarra ere erakusten zuten. Trikuharri bat egiteko harri tona asko mugitu behar zen eta taldearen izaera kementsu eta indartsua erakusteko ere balio zuten", azaldu du Luis del Barriok. "Ekialdera begira ehorzten zituzten gorpuak gehienetan, arimak egin beharreko bidaia horretan, goizeko argia jaso zezan", gaineratu du.

ka puskak..., aurkitu ziren bertan. Gainerako trikuharriak oraindik industu gabe daude. Indusketa arkologikoa modu egokian egiteak lan handia eskatzen du eta dirutza handia suposatzen du horrek. Azterketa radiokarbonikoak, materialen azterketa..., lan handia egin behar da ahalik eta informazio gehien lortzeko", dio Luisek.

"Trikuharrietan egindako indusketei esker jakin dugu garai hartan ere bazela komertzioa egiten zuenik ere. Ez da harritzekoa inguru honetako estazio megalitikoetan Arabako edo Iparraldeko silexa bilatzea. Aurkitzen diren zeramikapiezen azterketa eginez gero, ez da harritzekoa izaten Burgosen egindakoak direla jakitea. Inguru honetan bizi ziren

taldeak artzaintzari lotuta bizi ziren bezala, baziren salerosketan aritzen ziren beste taldeak ere".

ESTAZIOA IKUSTEKO BIDEAK

Eskualdetik Andatzako Estazio Megalitikora hurbiltzeko hainbat aukera dago. Batetik, Andoaindik edo Adunatik gora, Belkoain mendiko trikuharria ikus daiteke. Pagamendi baserriaren inguruko trikuharrira ere joan daiteke Zizurkil aldera joaz. Andatza mendiaren inguruko trikuharriak eta zista ikusteko, Zizurkilgo Ziortza gunera hurbiltzea da egokiena. Bertan jarritako panela, bisitarako lagungarria da. Informazio zehatza eskura eraman nahi duenak, Aduna, Andoain eta Zizurkilgo udaletxeetan aurkituko ditu eskuorriak.




**baserriko haragia
urdaitegi berezia**

**JOXEAN
HARATEGIA**

Bulandegi bidea, 1.
Zizurkil
943 69 62 42

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA:
EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEO POSTREAK
Errementari, 1 ☎ 943 69 10 25 - ASTEASU

Aitz-Ondo elkartearen

Aitz-Ondo elkarteak 50 urte bete ditu berriki.

Zelestino Tapia *Itturri* sortzaileetako batek, Esteban Irazu egungo lehendakariak, Mikel Mujika idazkariak eta Lontxo Usandizaga diruzainak eman dituzte azalpenak.

Duela 50 urte pasatxo zabaldu zen Asteasuko Aitz-Ondo elkarte. 1959 urteko martxoaren 12an, hain zuzen ere. Lehen zuzendaritza batzordea Jose Leon Usabiaga (lehendakaria), Agustin Otaegi (lehendakari-ordea), Jesus Bikuña (idazkaria), Inazio NARBARTe (diruzaina) eta, Pedro Otero, Jazinto Irazu eta Hilario Usandizaga batzordekide asteasuarrek osatu zuten. Elkartea zabaldu eta hilabete gutxira, 30 bazkide zituen dagoeneko. Andoainen, Villabonan eta inguruko beste herri batzuetan elkarteak martxan jarri zirela ikusita, Asteasun ere pausoa ematera animatu ziren. “Ezkonduak ere bai baina, *mutilzaharrak* biltzeko zabaltzen ziren orduan batik bat elkarteak”, azaldu du *Itturrik*. Kale Nagusiko Gaztene etxearen azpialdean kokatu zuten lehen elkarte hura.

EGOITZA BERRIA 1974AN

Denbora aurrera joan ahala eta taldea handitu zenean, gaur egungo Kale Berriko egoitza erosi zuten, 1974 urtean. Egun elkarte dagoen etxea Iyola baserriko Jose Martin Gabirondok eraiki zuen. “Goiko solairuan bizitu ziren iyolatarrak eta azpialdea, baserriarren kooperatiba izan zen elkar-



Mikel Mujika, Esteban Irazu, Zelestino Tapia “Itturri” eta Lontxo Usandizaga, elkarteko bulegoan.

te izan aurretik. Asteasu eta Larraulgo baserriarrek erosi zuten aurrena, pentsu biltegi moduan. Saltzera atera zenean Aitz-Ondo elkarteak hartu zuen, 700.000 pezetaren truke”, adierazi dute elkarriketatuta helduenek. Hasiera-hasie-

ratik izan du elkarteak Aitz-Ondo izena, “egun Tolosatik egiten den bezala, garai batean, Asteasutik bideratzen ziren Aitzondo bailarako juzgatuko lan guztiak. Bailarako izena garrantzitsua zelako jarriko zioten izen hori elkarteari”.

140 BAZKIDE

Egoitza berrira aldatu zirenean, pixkanaka-pixkanaka igotzen joan zen bazkide kopurua. “Egun 140 bazkide gara, topea”. Bazkide egin nahi duten kide berriei begira, elkartean sartzea nahiko zaila dela adierazi dute, “itxaron zerrendan 19 lagun daude zain. Oso zaila da inork giltza uztea, normalean familiakoren bati lagatzen zaio”. Gehiengo nagusia gizonezkoak dira baina emakumeak ere badaude bazkideen artean, “hasieran gizonezkoek soilik zuzendutako elkarte zen. 80ko hamarkadan onartu zen emakumeak –gizonarekin batera– elkartera sartzea, eta geroago, bazkide izateko aukera eman zitzairen. Egun, hiru emakume behintzat badira bazkide”, adierazi du egungo lehendakariak.

Zazpi kidek osatzen duten zuzendaritza batzordea urtero aldatzen dute, oso-osorik. “Gaztenetik egoitza berrira pasa zirenean, bi urtez behin aldatzen zen zuzendaritza; urtero orain”.

‘ITTURRI’REN OROITZAPENAK

Gaztene etxean elkarte zabaldu eta berehala eman nuen izena, hogeita seigarren bazkidea naiz. 1931 urtean jaio eta 28 urte nituela sartu nintzen. Nolabaiteko elkarte koxkorra zen hasierakoa, oso zaharra zen etxea. Apal batean botila ardo batzuk egoten ziren. Ez zuen sukaldarik ere. Atarian, harbintzarrezko lurraren gainean, parrilla egoten zen eta han prestatzen genituen otorduak, uralitazko aterpean babestuta. Sua pizten komerriak izaten genituen hasieran; gero hauspo txiki bat jarri zen eragiteko eta orduan nahiko ondo moldatzen ginen. Mahaian, zazpi bat lagunek jateko tokia izaten zen eta giro polita sortzen zen. Larunbat eta igandetan tripaki edo txipiroi kazuelatxoak eramaten genituen tabernatik eta



elkartean egiten genituen otorduak. Astean ez zen mugimendu handirik izaten; ardo pixka bat edan eta kito. Ni sartu eta geroago jarri zen kafetera txiki bat ere. Tertulian aritzen ginen. Oraingoaren aldean diferentia zen orduan.

urrezko urteurrena



80ko hamarkadan onartu zen emakumeak –gizonarekin batera– elkartera sartzea”

TXIRRINDULARITZAREKIN LOTUTA

Hasierako urte luzetan, elkar-te gastronomikoa izan zen Aitz-Ondo. Gerora, herrian txirrindularitzako afizioa piztu zenean, elkarte gastronomiko izatetik kirol elkarte izatera pasatu zen. Elkarte gastronomikoa eta kirol elkarte leku berean bilduagatik, bereizita landu izan dituzte beti etxeko kontuak. “Orain beste egoitza batean biltzen dira txirrindularitza taldekoak baina elkartetik, ekonomikoki nahiz ekin-tzak antolatze laguntza eskaintzen diegu”.

ESKUALDEKO MUS TXAPELKETA

Otorduak egiteaz gain, ekintza ezberdinak antolatze ere erabiltzen dute elkarteak. “Bazkideek bideratuta, ekintza ezberdinak antolatzen dira: Kantu-jirako harrera, bertso-afariak, haurren urtebetetze festak...”. Gainerako eskualdeko elkar-tekin badute harremana eta bai-



25. urteurrenean ere, ospakizun ugari egin zuten bazkideek.

larako elkartearen arteko mus txapelketan parte hartzen dute Aitz-Ondoko kideek. “Bedera-tzi elkarte biltzera ailegatu gara: Irrintzi, Behar-Zana, Zunbeltz, Urkamendi, Ibaieritz, Uxo-Toki, Santamaña, Katillutxulo eta Aitz-Ondo”, azaldu du Lontxok. Mus txapelketarekin Aste San-tu ondorenean hasi eta maia-tzaren amaieran bukatzen dute, “aurten berandu samar gabil-tza, oraindik ez baikara hasi. Txapelketan zehar, astean bitan jokatzen dugu partida eta larun-batarekin egiten dugu finala”.

GIRO POLITA ELKARTEAN

Sukaldean aritzea gustatzen zaien arren, “ekarritakoa jatea ere bai”, adierazi dute umore-tsu. Elkartean sukaldean asko saiatzen den koadrila badago-ela azaldu dute, “Irrintzik anto-latzen duen Isats gisatuen lehia-

keta irabazi izan dute bazkide batzuek”. Urteurreneko ospa-kizuneko bazkaria prestatzeko ere animatu da talde bat.

Elkarteak lagun artera bildu eta tarte polita pasatzeko hel-burua betetzen jarraitzen du oraindik ere. Aitz-Ondon, lagun artean egun pasa poli-tak egin izan dituztela aipatu

du Mikelek, “orduak pasa eta orduak pasa, *bazkaldu ere egin beharko dugu* eta orduak pasa eta orduak pasa, *afaldu ere egin beharko dugu...* Azkenean, egun guztia elkartetik atera gabe, gustura”.

OSPAKIZUNA, EKAINAREN 7AN

1984 urtean, ekainean egin zuten 25. urteurreneko ospa-kizuna. 50. urteurrena ere ekai-nean ospatuko dute. “Ekaina-ren 7an, igandearekin, bazki-deen eta inguruko elkar-teeta-ko gonbidatuen arteko bazka-ria egingo dugu. Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariak arituko dira bertso-tan eta Ostolaza trikitilariak joko du soina. Goizean meza izango da, 11:30etan”.

Elizmendiko jaiak



Argazki gehiago www.aiurri.com gunean

FRANCISCO MENDIKUTE



HARATEGIA - URDAITEGIA

ESNE PRODUKTUAK
HAUTATUTAKO KONTSERBAK
ETA KALITATEZKO OKELA

Euskal Herriko produktueta oinarritua:

Kaletxiki, 15 • 943 590 258 • ANDOAIN



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida, z/g - 307.
Modulua • 943 592 923
ANDOAIN

Larraul herri izatera iritsi zenekoa

Inoiz idatzi gabea zen
Larraulgo historia. Urte
luzetan artxibo
ezberdinetatik informazioa
batu ondoren, herriaren
historia idatzi du Pello Joxe
Aranburuk Manuel
Larramendi Bazkunak
egindako beka deialdiaren
barnean.

XI. mende inguruan Larraulgo lehen etxe-ak sortu zirenetik, Aiztondoko Udaletik banatu eta herri izaera lortu zuen arteko historia idatzi du Pello Joxe Aranburuk: “Hiru arotan banatu dut Larraulgo historia. Hasteko, XI eta XVI. mendeen arteko informazio gehigirik ez dago, baina garai horretan hamar baserri inguru sortu zen Larraulen. XVI. mendetik aurrera, eraikuntza ezberdinak altxatzen dituzte; Txuringai errota, eliza, eta burdinola zaharra. Gerora, garrantzia handia izango dute eraikuntza horiek, herri kontzientzia sortu zutelako. Aztertu dudaz azken aroan, Larraulek herri izaera hartzen du eta banatzea lortzen dute. XVIII-XIX. mendeen artean gertatu zen hori”, azaldu du Pello Joxek.

ARTXIBATEGIETAN BARRENA

Dokumentazio falta izan da Pello Joxek lanerako aurkitu duen zailtasunetako bat: “Larraulgo udaletxeak hiru sute pairatu ditu historian zehar. Azkenekoan, 36ko Gerran gertatua, udaletxea guztiz kiskali zen eta artxibategiko dokumentu guztiak galdu egin ziren. Horregatik, beste zenbait artxibategitan egin behar da bilaketa:



Pello Joxe Aranburuk Larraulgo historia bildu du.

Tolosakoan, Asteasuko udaletxean, Elizbarrutiko artxibategian, Oñatin...”

Duela urte batzuk, Alkizako historia biltzeko ahalegina egin zuen Pello Joxe Aranburuk, eta artxibategietan zebilela, Larrauli buruz aurkitutakoak ere biltzen joan zen: “Urtetan zehar aurkitutakoak etxean artxibatuz joan nintzen. Larramendi Bazkunaren beka deialdiaren berri jakitean, Larraulgo historiaren inguruko saiakera egitea polita zela iruditu zitzaidan. Alkizakolana egin nuenean aurkitutako dokumentuak artxibatuta nituen, dokumentazio lanaren zatirik handiena aurreratua nuen beraz. Azkenaldian, lanari forma ematen aritu naiz. Larraulek herri izaera noiz, nola, zergatik lortu zuen jakin nahi nuen eta horretan pasa ditut azken hilabeteak”.

XVIII-XIX. mendeen garrantzia berezia eman die Pello Joxek Larraulgo historian: “Garai horretan sortu zen herri izaeraren kontzientzia. Asteasurekin batera, Aiztondoko Udalaren barnean zegoen Larraul ordura arte. Herri sai-

“Ziurrenik, larrauldarren lehen giza ekintza izango zen Txuringai errota eraikitzea”

len erabilpena, basoen ustiaketa edota gastuak banatzera-koan, zati handiagoa hartzen zuen Asteasuk: lautik hiru. Hori zela eta, bi herrien arteko haserreak sortu ziren. 1614 urte inguruan, gaur ezagutzen ditugun Gipuzkoako herri gehienek herri izaera lortu zuten. Larraul, ordea, txikia zen eta zailtasun ekonomikoak zituen. Udaletxea eraiki eta mantendu egin behar zen, eta etxe gutxi zegoen Larraulen. Horregatik, denbora gehixeago behar izan zuten”.

ELIZA, ERROTA, HERRIA

Elizaren eraikuntzak garrantzia berezia izan zuen Larraulen: “Herritarren artean ordaindu zuten eta garai horretan hamar baserri besterik ez zegoen Larraulen. Txuringaiko errota ere garrantzitsua izan zen. Ziurrenik, larrauldarren lehen

giza ekintza izango zen errota egitea”. Berrehun orrialde inguruko liburuan bildu du Larraulgo historia Pello Joxek: “Dokumentazio gutxi dagoenez, dokumenturik interesgarrienak eranskinetan jarri ditut, eskaerak batzuk eta fotokopiatuta beste batzuk. Koldo Jaurregiren laguntzaz ateratako laurogei argazki inguru ere erantsi dizkiot lanari. Pello Mari Aranbururen laguntza ere izan dut zenbait argazki txukuntzeko garaian. Orain, lanari azken zuzenketak egin eta inprentarako prestatzea bakanrik falta da”.

JUBILATU ONDOREN, IKERLARI

Euskara irakasle izan da Pello Joxe Aranburu urte askoan. Jubilazioaren atarian hasi zen artxibategietan arakatu eta ikerketa lan ezberdinak egiten. “Alkizako historia biltzen duen liburua egiteaz gain, Juan Bautista Agirreren biografia ere osatu nuen. Azken urteotan, asmo potolo batek lanean eduki nau buru-belarri. Irun eta Madril batzen dituen *Norteko trenaren* inguruko lau liburu argitaratu ditut Luis Mari Intzarekin elkarlanean. Artxibategi askotara jo behar izan dugu eta ia bost urtetako lana izan da. Egindako lan horren harira beste zenbait eskaera ere sortu zitzaigun. Zumarragako Udalak, garai batean herri hartan izan ziren lau trenbideren inguruko argitalpena eskatu zigun eta beste horrenbeste eskatu ziguten Beasaindik ere. Erriotik Asteasura egurra jais-teko eraikitako kablearen inguruko azterketa ere egin dut. Jubilatuta izanagatik, beti izaten dut zereginen bat”, azaldu Pello Joxek.

HITZ gurutzatuak

ELOY ARTOLAZABAL

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3									●	
4			●							
5				●		●			●	
6					●		●			
7						●				
8					●					
9				●						
10								●		

Ezker-eskuin:

1. Hizlari. **2.** Aguretasun nolakotasuna **3.** Zalantza. 500. **4.** Emea ez dena. Landare honetatik izen bereko izozkiak egiten dira. **5.** Ald., eta errepikatuz, dirdira eginez. Bat. Budan ikus daitezke. Erradioaren ikurra. **6.** Garbi(tu). 50 litro. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. **7.** Beldurti, kuzkur. Txerri. **8.** Zenbait otoiizen amaieran. Hilik jaiotzen den umekia. **9.** Ald., joko bakoitza tenisean. Txarto. **10.** Abaildura, nekadura. Kasik.

Goitik behera:

1. Madariak maite dituen katuak madarikazioak bota. **2.** Esperantza. **3.** Ald., dutenen atzizkia. Dukearen emaztea. **4.** Ald., atzo gauean. Joramendu. 500. **5.** Mehatxu. 50. Zuek ez. **6.** Gure arrantzaleak ez dira Seychelles uharteetara turismo egitera, hori harrapatzera baizik. 90° dituen letra. Australiar bat bere bizitzaren azken egunetan. **7.** Ald., kanpora(tu), kalera(tu). Donostiako leku horretatik ikuspegi ederra dago. **8.** Batek beste norbait asalda(tu). **9.** Rutenioaren ikurra baina buelta emanda bizitzeko behar duguna da. Letra honek bi alde ditu; lau izanez gero, laukia litzateke. Ukan, izan. **10.** Indarra gaizki erabilteza.

Erantzunak: 320

V	I	●	V	R	U	D	V	N	U	10
I	K	Z	I	V	G	●	S	E	T	9
R	U	V	T	I	●	N	E	M	V	8
E	D	R	U	●	L	I	K	I	K	7
K	E	V	●	L	●	Z	U	K	I	6
R	●	D	B	●	I	●	D	I	R	5
A	L	L	I	N	V	B	●	R	A	4
D	●	V	D	U	M	V	D	U	D	3
N	U	S	V	T	E	R	U	G	V	2
I	R	V	A	L	Z	T	N	I	M	1
10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	

Merkatu txikia

- > Seat Marbella autoa salgai 961 eurotan. Errebisio guztiak pasata, egoera onean. **617 863 669.**
 - > Artzai zakurra salgai. **617 863 669.**
 - > Egur txikitua salgai, haritz lehorra. Goiburu auzoa. Tel.: **943 593 034.**
 - > Ingelesko klaseak ematen dira. Bakarka edo taldeka. Maila ezberdinak. Irakasle tituloduna. **664 160 268.**
 - > Bigarren eskuko eskusoinua erosiko nuke (botoiduna). Hasi berria den ume batentzat. Arratsalde: **630 243 850.**
 - > BMW 320 coupé E36 autoa salgai, oso egoera onean. 3.000 euro. Tel. **657 700 165.**
 - > Garaje itxi bat alokatzen da helbide honetan: Txitibar plaza, 2 Andoain. Tel.: **680 348 212.**
 - > Yamaha R1, 2004. urteko motorra salgai. Kolore urdinekoa. Estrak dauzka. 15.000 km. 8.100 eurotan. Tel.: **657 700 165**
 - > Lasarteko erdialdean etxebizitza eta garaje bat alokatzen dira. Tel.: **686 674 552.**
 - > Volkswagen Golf bat salgai: 104.000 km., SS-AL baina oso egoera onean. Aukera bikaina.
- 700 €. Tel.: **656 782 521**
- > 32 zaldiko Lander traktorea eta Renault Kangoo autoa (60.000 km.) salgai. Tel.: **617 863 669**
 - > Asteasuko Kale Nagusian etxebizitza salgai, hiru logela eta bi komun ditu, 80m². Prezio interesgarria. Tel.: **687 317 029.**
 - > Ingelesko klase partikularrak emango litzuzkeen norbaiten bila nabil. Tel.: **688 630 379** (Marijo)
 - > Suzuki Vitara 1900 diesela salgai. 1999 urtekoa, 178.000 km. Defentsa eta lllantak aluminiozkoak. Deskapotablea. Aukera. Tel.: **616 333 017, 666 166 333.**
 - > Montesa motorra salgai eta Kangoo autoa, 70.000 km-rekin. Tel.: **617 863 669.**
 - > Pottoka arrazako abereak salgai. Eskura ohituak eta kalifikatuak. Tel.: **660 221 618**
- andoain@aiurri.com MEZUA BIDALI
943 300 732 TELEFONOZ DEITU
DOHAINIK

Farmaziak

AIZTONDO

Ostirala, 8 **OLARREAGA M**
Larunbata, 9 **OLARREAGA J**
Igandea, 10 **MORANT**
Astelehena, 11. **UGARTE**
Asteartea, 12. **BRONTE**
Asteazkena, 13 **ITURRIOZ**
Osteguna, 14 **SANTAMARIA**
Ostirala, 15 **TOLOSA**
Larunbata, 16. **AZPIROZ**
Igandea, 17 **OLARREAGA M**
Astelehena, 18 **MORANT**
Asteartea, 19. **UGARTE**
Asteazkena, 20 **OLARREAGA J**
Osteguna, 21. **ITURRIOZ**
Ostirala, 22. **SANTAMARIA**
Larunbata, 23 **ETXEBESTE**

ANDOAIN

Ostirala, 8. **DIAZ**
Larunbata, 9 **GOROSPE/DIAZ**
Igandea, 10. **DIAZ**
Astelehena, 11. **ELIZONDO**
Asteartea, 12 **GOROSPE**
Asteazkena, 13. **ZATARAIN**
Osteguna, 14. **ANSA**
Ostirala, 15 **ARZALLUS**
Larunbata, 16 **ANSA/ELIZONDO**
Igandea, 17 **ELIZONDO**
Astelehena, 18 **DIAZ**
Asteartea, 19 **ELIZONDO**
Asteazkena, 20 **GOROSPE**
Osteguna, 21 **ZATARAIN**
Ostirala, 22 **ANSA**
Larunbata, 23 **DIAZ/GOROSPE**



'Zoaz invernura, laztana'

Maiatzaren 7an Beterriko Liburua Literatur Aipamenaren XIII. sari-emate ekitaldia izan zen Zizurkilgo Olentzo jatetxean.

Anjel Lertxundik idatzi eta Alberdania argitaletxeak argitaratutako *Zoaz invernura, laztana* eleberriari eman zitzaion 2008ko izendapena. 111 Akademiako kideek hiru bozketa txandaren bidez erabaki zuten genero indarkeriaz hitz egiten duen liburuari sari-tzea. Amaia Goikoetxea 111 Akademiako arduradunak gidatu zuen maiatzaren 7ko ekitaldia. Mahaiburua, berriz, Eusko Jaurilaritzako kultura saileko hizkuntza politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendari Estitxu Alkorkak, Zizurkilgo alkate Mari Anjeles Lazkanok, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakari Jon Unanuek eta 111 Akademiako behin-behineko akademiaburu Eloi Egibarrek osatu zuten. Ekitaldiko giroa Kemen Lertxundi abeslari bizkaitarrak goxatu zuen.

JASOTAKO MEREZIMENDUAK
Larramendi Bazkuneko lehendakariak jakinarazi zuen liburuak Aipamena bereganatzeko jaso zituen merezimenduen berri, "gaurkotasunak behin eta berriz begien aurrean jartzen digun tratatu txarren gaia modu sinesgarrian eraman du literaturara eta irakurlea hasieratik harrapatzen duen istorio interesgarria osatu du Lertxun-



Anjel Lertxundi, 2002. urteko Beterriko Liburua Literatur Aipamena eskuratu ondoren

dik. Bestetik, pertsonaiaren egoera nahiz hura bizi den espazioaren deskribapen zehatz eta iradokitzailak ekarri ditu eta, emakume jipoituaren azalean jarrita, tratatu txarren ezkutuko bide luze eta gordea ezin hobeto plazaratu du. Era berean, maisuki erabili du hizkuntza, irakurketari erritmoa eman eta genero beltzeko teknikak sartuz". Iritzi ugari jaso du Lertxundiren liburuak 111 Akademiakiko kideen eskutik ere. Andoaingo irakurle batek, "gustura eta erraz irakurri dut. Bukaera suspentsea ondo lortzen du, nahiz eta bitartekoa batzuetan errepikagarria den. Asko gustatu zait kontakizun zati baten azken hitzak nola kateatu dituen narratzaile berriaren hurrengo pasarte-

ekin. Amaiera, hala ere etsigarria egin zait", adierazi zuen. Oñatiko beste batek: "Oso nobela ona. Gai polemiko bat nahiko ondo tratatua eta irakurterraza. Barruraino iristen da. Ez du ematen pentsatzeko astirik baina bai hausnartzeko astia eta garrantzitsuagoa dena, kapitulu bat amaitzen denean hurrengo irakurtzeko irrikitan jartzen zaitu. Hasieran xube hasten da eta momenturik gorenera nobela garatzen doan heinean iristen da". Iritzi gehiago: www.111akademia.com.

LERTXUNDI POZIK ETA GUSTURA

Anjel Lertxundi pozik eta gustura agertu zen bigarren irakurleek eskainitako saria jasotzerakoan. "Euskal idazleon



artean estimu handia du Beterriko Liburua sariak, irakurleek emandakoa delako. Saria sortu zenetik bere ibilbidea egin du eta idazle askok esan du saririk kuttunenetakoa dela Beterrikoa. 2002. urtean ezuste eta poz handia hartu nuen *Zorion perfektua* liburuagatik saria eman zidatenean. Postariak beti deitzen duela bi aldiz eta niri egokitu zaidala bigarren txanda horretan saria berriro jasotzea esanez Jon Unanuek deitu zidanean, sorpresa handia hartu nuen eta asko poztu nintzen berriro". Liburuak eskuratu dituen merezimenduak jakinarazi eta gero, agiria eta larru bereziz koardnatutako liburu saritua jaso zituen Lertxundik, gerturatutakoen txalo artean. Saria irakurleek ematen dutela kontuan hartuta, irakurketarekin eta irakurtzeko moduarekin lotutako hizketaldia eskaini zuen Zarautzen bizi den oriotarrak. Hizketaldia irakurgai www.aiurri.com gunean.



1996
Joxean
Aizpe
Elgeta

1997
Ur Apalategi
Indio
Gauak eta hiriak

1998
Koldo
Izaguirre
Nik ere
Germinal! egin
gura nuen aldarri

1999
Lourdes
Oñederra:
Eta emakumeak
sugeak esan zion

2000
Ramon
Saizarbitoria
Gorde nazazu
lurpean

2001
Joseba
Sarrionandia
Lagun izotzua

2002
Anjel
Lertxundi
Zorion perfektua

2003
Bernardo
Abago
Somnijoaren
semea

2004
Pako
Aristi
Gaua bikien
liburua

2005
Juan Kruz
Igarabide
Hauts bihurtu
zintzen

2006
Karmele
Jaino
Amaren eskuak

2007
Jokin
Muñoz
Antzaren
bidea

2008ko Beterriko Liburu

Amaia Goikoetxea alegiarra, 2006 urte amaieran hasi zen Larramendi Bazkunak abian jarritako 111 Akademia gidatzen.

Akademiakide ugari hartu du parte aurtengo saria erabakitze-ko hautaketa prozesuan. Zer nola-ko bidea izan da?

Aukeraketa prozesuan 81 lagunek hartu dute parte. Agerikoa denez, akademiakide batek baino gehiagok botorik ez ematea erabaki du, irakurritako liburuen artean saria merezi duenik aurkitu ez duelako. Aipamena jaso duen *Zoaz infernura, laztana* liburua aukeratzeko hiru bozketa txanda egin dira. Lehen txandan, 2008 urtean argitaratutako liburu guztiak ziren hautagaiak eta lehen saiakeran saritua izango zena aukeratzeko, %30 baino boto gehiago eskuratu behar zituen. Hori gertatu ez zenez, bigarren txandara pasa ziren boto gehien eskuratu zuten bost liburuak. Bigarrenetan, liburu horietakoren batek %40a baino gehiago behar zuen garaile izateko. Gutxigatik baina, hala izan ez zenez, hirugarren txandara igaro ziren bost horien artean bi bozkatuak. Eta bi aukeren artean,



Amaia Goikoetxea 111 Akademiako koordinatzailea, Zizurkilgo bulegoaren atarian.

erraza, bata edo bestea: boto gehien lortu zuena.

Zein liburu ibili dira Lertxundire-narekin batera, muga-mugan?

Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana* eleberrak 16 botoko aldea atera dio Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* lanari. Atzerago geratu dira Joan Mari Irigoien *Bestea da mundua*, Fernando Morilloren *Suminaren estrategia* nahiz Jon Martinen *Ero* liburuak.

Zer nolako balorazioa egiten duzu 111 Akademiaren lanaz?

2008 urtean izugarritzko iritzi mordoa jaso dugu urte guztian zehar: 231 hain zuzen ere. Sekula baino iritzi gehiago. Jendea akademiaren webgunea erabiltzen hasi dela ere ikusi da eta horren adibide, jende askok internet bidez bidali dituela



***Zoaz infernura, laztana* eleberrak 16 botoko aldea atera dio Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* lanari**

liburuen inguruko iritziak. Akademiakideen lanarekin gusturago. 2008an Akademian sartu zen jendea gogoz eta indartsu sartu dela agerikoa da; ekarpen handiak egin dituzte.

Zenbat kidek osatzen du Akademia egun? Nongotarrak dira?

Hasieran 111 akademiakidera iristera zen gure helburua baina, behin kopuru hori gaindituta –egun 129 kide dira–, ez daukagu mugarik. Zenbat eta anitzagoa izan orduan eta hobea, dudarik gabe. Gipuzkoarrak dira akademiakide gehienak baina azken urte honetan, beste lurraldeetatik irakurle ugari gerturatzea lortu dugula nabarmendu behar da; bereziki, Iparraldeko lau irakurle batu zaizkigula. Ondorioz, Iparraldeak ere 111 Akademian ordezkartza izango du aurrerantzean. Gainerakoan, Bizkaia, Araba eta Nafarroako akademiakide berri ugari dugu iaztik.

Oro har, emakumea gizona baino irakurle finagoa dela esan ohi

da. Emakumeak nagusitzen al dira 111 Akademian ere?

74 emakumek eta 55 gizonak osatzen dute une honetan 111 Akademia. Dena den, iritzi gehien bidaltzen duten akademiakideen artean, gizonak gehiago dira emakumeak baino.

2007an sortu zen 111 Akademia. Aurrez zegoen Epaimahai Orokorra indartu eta euskal literatura sustatzeko jaio zen...

Akademiakideek aurreko epaimahaiakideek zuten eginkizun bera hartu zuten hasieran: irakurritako liburuen gaineko iritziak bidali eta Literatur Aipamena iritsi aurretik, euskal literatur uztatik urtean zehar gogokoan izan duten liburuen proposamena egitea. Gero, parte hartu nahi zutenei begira, beste ekimen batzuk ere bideratu dira: batzordeak, webgunea...

Aurrera begira zein asmo duzue?

Hasiak gara dagoeneko 2009 urtean kaleratutako liburuen iritziak jasotzen. Bide horri eutsi eta indartu egin nahi dugu aurrerantzean. Bestalde, ekimen gehiagori forma ematen ere ari gara; besteak beste, Beterriko Liburua literatur aldizkarian argitaratutako hainbat idazlanen bilduma lanari.



Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN AHOLKULARITZA

Fiskala, dirukontuena, juridikoa, laborala, aseguru orokorrak

Kale Nagusia, 37

Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774

AMASA-VILLABONA

San Martin merkatuko M

Milagros Sorarrainek, Asteasun jaio arren Andoingo Ubalategi baserrian eman ditu bere bizitzako urterik gehienak. Baserriko genero saltzailea da.

Milagros Sorarrain Irazusta Asteasuko Ibarguren baserrian jaio zen, 1937ko irailaren 18an. Laugarrena da zazpi senideetatik. Egia izango da berak dioen bezala “larre motzean hazitakoak” izan direla baserrian, bizitzaren gogortasunean hazitakoak, alegia. Izan ere, bizi dira, eta nola gainera, 70-80 urteren bueltan dabiltzan zazpi senideak. Denak bildu ziren lehenengo asteen, bazkari eder batean.

Zailtasunak markatutako haurtzaro eta gaztaroa ezagutu arren, festarekin ere gozatu izan du franko Milagrosek. “Asteasun ttuntuna izaten zen ia igandero, eta saltoka kale guztian zehar ibiltzen ginen; nahikoa festa egiteko”. Ez ziren, ez, geldirik egoteak, eta jai egunetan Asteasun bertan ez bazen musikarik, urrutirago abiatzen ziren haren bila. “Oso ibiltari bixkorrak ginen eta



Milagros, San Martin merkatuko postuan, egunero legez.

Larrauldik gora, Iturriotzera edo Zelatunera musika hotsaren bila joaten ginen oinez”.

Ibarguren baserriak sagasiak zituen izugarri, eta etxeak Donostiara Bretxako merkatura joaten ziren sagarra saltzera. “Saskiak errege-sagarrez eta berduraz bete, eta Villabonaino astoa zamatuta joaten ginen. Trena hartu bertan eta Donostiara. Han gurdizainak egoten ziren zain, gure genero merkatura eramateko. Makina bat ginen Donostiara joanda bizimodua hortatik ateratzen genuen baserritarrak”.

Baina baserrian senide asko izaki, ezin aurrera egin denek

bertan. “Oso gazterik neska-me gisa joan nintzen, Basagoitia abizeneko Tolosako familia aberats baten etxera. Lau bat urte egin nituen Tolosan, sukaldetan ikasteko lain baizik ez. 1954ko apirilean Antonio Zalakain andoaindarrarekin ezkondu, eta Ubalategi baserria hartu nuen bizitokitza. Gaur arte”.

Harrezkero, Milagrosen bizimodua Donostiako San Martin merkatuari lotuta doa estu-estuan. “Madrilgo zortzi eguneko ezkon bidaiatik itzuli eta berehala hasi nintzen San Martin merkatura joaten. Ubalategiko familiak han postua baitzeukan”.



Gure baserriko generoa besterik ez dut eraman saltzera urtetan eta urtetan Donostiara”

SALTZAILERIK ESKARMENTATUENETAKOA

Hutsik egin gabe joan da urte hauetan saltoki horretara, “igandea eta astelehena ez gainerako egunetan. Goizeko 06:00etan jaikita hasten da nire eguneko lana. San Martin merkatuan arratsaldeko 14:00ak arte egoten naiz. Gero arratsaldea, hurrengo eguneko salgaiak prestatzen ematen dut”.

Ubalategi baserria, Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, harrobiaren eta N1 errepidearen artean. Inguru horretan egundoko lur sailak izan ditu baserriak, eta benetan emankorra gertatu zaio familiari. “Gure baserriko generoa besterik ez dut eraman saltzera urtetan eta urtetan Donostiara: porrua, azenarioa, tomatea, azelga, tipula, letxua...”.

Orain lau urte, ordea, lurra-ri itsasitako bizimodu hori ia eten zuen gertaera beltza heldu zen Zalakain Sorarrain familiaren etxera. “Urumeako

STOP
LIBURU DENDA

Agustin Leitza, 27
☎ 943 591 603
20140 ANDOAIN
(Gipuzkoa)



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

Milagros



Gogoagatik balitz, Erniora igoko nintzateke oraintxe. Ezin ordea! bi belaunetatik operatuta nago eta

errepidea egin behar zela eta, lur sailik aberatsenak kendu zizkiguten. Ederki ikusi genuen zein erraz honda daitekeen zure betiko bizimodua huskeria baten truke edo desjabetzearen bidetik”.

Gaur egun, beraz, ezin etxe-ko produktuak saldu. “Lorea

eramaten dugu batez ere Donostiara, negutegia jartze-
ra animatu baikin orain urte batzuk. Lurreko gainerako generoa, berriz, Bugatiko merkatutik hartzen dugu. Hemen-
go produktua hartzen saiatzen naiz, hori bai”.

Milagros San Martinen hasi zenetik honuntza, asko aldatu dira gauzak han. “Ezagutu ditut Gipuzkoa osotik makina bat baserritar joaten ziren garaiak. Metro bakarreko postuan igual lau baserritar jartzen gineneko garaiak. Gaur egun, hala ere, asko urritu da kopurua, eta Bete-



Erniora lagunekin edo senargaiarekin joaten zenekoa, gazte garaitan.

rri aldetik Andoaingo Juanita Garagorri eta biok baino ez gara biltzen”.

Ez du entzun ere egin nahi erretiro hitza, nahiz 72 urte izan. “Gogoagatik balitz, Erniora igoko nintzateke oraintxe. Ezin ordea! bi belaunetatik

operatuta nago eta protesiak jarrita dauzkat. Bi semeek generoa prestatzen lagundu eta senarrak Donostiara eramaten nauen bitartean, lanean jarraitzeko asmoa dut. Hala-koxekoa baita baserriaren iza-
era!”.

Kontzertuak

Andoain **bastero**
KULTURGUNA




Mikel Markez

MAIATZAK 16, larunbata, 20:00

Sarrera: 9 €



Labordeta



Luis Pastor

FCC FUNDACIÓN
CONSTRUCCIÓN Y CONTRATAS S.A.

MAIATZAK 22,
ostirala, 21:30

Sarrera: 15 €

Sarreraren
salmenta:



SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



MAIATZAREN 8tik aurrera

Odol emaileak

Andoain

- > Maiatzak 12, asteartea
Anbulatorioa

Maiatza Saltsan

Zizurkil

- > Erakusketa
"Oteiza, Bizirako Proiektua"
erakusketa ikusgai.
Maiatzaren 26ra arte.

Mendizaletasuna

Andoain

- > Loiola-Xabier, 4. etapa:
Azkarate-Betelu-Baraibar-
Lekunberri.
Maiatzak 10, igandea.
- > Ezkarai-San Lorenzo (2271)-San
Millan (2132)
Maiatzak 23 eta 24.

Amasa-Villabona

- > Lokiz mendilerroa-Ollogoien.
Maiatzak 16 eta 17.

Asteasu

- > Iparraldera mendi irteera.
Maiatzak 17, igandea.

Beterri-Aiztondo

- > Gazumen parke-eolikoa
jartzearen aurkako
kontzentrazioa.
Maiatzak 17, igandea.
12:00, Zelatun.

Herri kirolak

Aduna

- > "Gorostidi Harria" herri kirol
saioa. Aimar Irigoien eta
Ostolaza harri-jasotzaileak
elkarren aurka lehiatuko dira eta

Basterock gauak

5

El Vez

Andoain **bastero**



MAIATZAK 15, ostirala, 22:30
Sarrera: 10 €

Sarrerak salmenta:



SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



Joxe Mari Mendizabal aizkoran
marka berria jartzen saiatuko
da, laurogei ontzako lau enbor
zutika ebakiz.
Maiatzak 17, igandea

larunbata 19:00etan eta
maiatzak 31, igandea
17:00etan. Gurea zineman, 3 €.

Bertsolaritza

Beterri-Aiztondo

- > Gipuzkoako Bertsotzaile
Elkartearen eskutik,
'Ahozkotatasuna eta
bertsolaritza' egitasmoa abian
da Euskal Herriko ikasleen
artean. Baita eskualdean ere:
> Maiatzak 12: Asteasu, 18:00
> Maiatzak 13: Amasa-Villabonako

Gurean, 18:00

- > Maiatzak 26: Andoaingo
Basteron, 18:00
- > Maiatzak 28: Adunan, 18:00

Antzerkia

Amasa-Villabona

- > Ahuntza edo nor da Silvia?
antzezlan tragikomikoa.
Maiatzak 29, ostirala
22:00etan Gurea antzokian.

Jardunaldiak

Amasa-Villabona

Jatorrin elkarteak antolatuta:

"Ezberdintasunak hurbilduz:
Arabiar kulturari buruzko
tailerrak".

- > Inmigratioari buruzko hitzaldia:
Hiritartasun berria Euskal
Herrian. Hizlariak: Agustín
Unzuurrungaza eta Begoña
Petxaroman.
Maiatzak 28. 19:30, udaletxean.
- > "Querida Bamako"
dokumentalaren proiektzioa.
Maiatzak 29. 19:30, udaletxean.
- > Tailerrak herriko kaleetan:
Arabiar gastronomiaren
dastaketa, hena tailerra, arabiar
dantza, arabiar idazkerari
buruzko tailerra, arabiar
artisautearen erakusketa.
17:00etan herriko kaleetan.
- > Arabiar afari tipikoa eta berbere
musika kontzertua Bouhia
taldearekin 21:00etan.

Hurrengo Aiurri

MAIATZAK 22

www.aiurri.com



09/10 ikasturtea Matrikulazioa zabalik

GOIZEKO 10:00ETATIK 12:00ETARA

- Adunan: Maiatzak 14-15 udaletxean
- Villabonan: Maiatzaren 11tik 15era
musika eskolan
- Zizurkilen: Maiatzak 11-12-13
Atxulondon
- Informazio gehiago: 943 692 619

XXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria



Lanak aurkezteko azken eguna: maiatzak 15

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua

943-300830

ngoikoetxea@andoain.org

2009

Rikardo Arregi

Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942 - Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antola zezan proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak **“Politika Estrukturak europear alkartasunean”** (1965); **“Politikaren atarian”** (1969); **“Herriaren lekuko”** (1972)...



ANDOAINGO UDALA
*Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila*



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

BASERRITARREN EGUNA

Maiatzak 15, ostirala

SAN ISIDRO EGUNA

11:15: Meza

13:00: Erakustaldia probalekuan.

Olarrea Goikoako idi pare.

Joxe Barriolaren idi pare

(20 minutuko saioak. 1.200 kiloko harria gain-kargarekin).

14:00: Bazkaria Sarasola sagardotegian. Prezioa: 20 euro

Izen-ematea: **943 691 907** goizez

943 696 896 arratsaldeaz

Epea: maiatzak 12

Bertsolariak:

Amets Arzallus,

Sustrai Colina.

Trikitilariak

Antolatzaileak:
Herriko
baserritarrak eta
Asteasuko
Udala



AITA LARRAMENDI IKASTOLA - ANDOAIN

BATXILERGOA

ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA

GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK

Euskaraz eta Ikastolan

Txistoki Pasealekua, z/g



943 593 525

E-posta:

andoain@ikastola.net

Web:

www.andoainikastola.net

Kalitate kontrastatua - Langiro ona - Instalazio eta ekipamendu egokiak



Kuota egokiak - Orientazio profesionala - Tutoretza pertsonalizatua

Tren nahiz
autobusez
**KOMUNIKAZIO
BIKAINA**



Brinkola - Andoain - Irun

Tolosa - Andoain - Donostia
Hernani - Urnieta - Andoain



**MATRIKULA
EPEA
ZABALIK**

www.andoainikastola.net